



# BADEA NORBAIT ?


L'EUSKARA  
AU BOUT DE LA LANGUE

Amikuzeko euskalgintza




# Badea norbait ?

L'euskara au bout de la langue



# SAR HiTZA

***Edo zerbait egiten  
dugu egun guzietako  
urratsetan, edo  
sekulako galduko da.***



Eskuetan duzun liburutto hau, 2011ko lehen sei hilabeteetan antolatu euskararen aldeko kanpainakari ateraia da.

Amikuzen, euskara galdutzat emaiten ahal bada ere batzuetan, ikusirik zenbateko presentzia eskasa duen jende gehienen harremanetan, axaleko ohar hortarik haratago xekatuz geroz, ohartzen gira, hemen ere badela euskaldun. Menturaz beste nun nahi bezainbat.

Haatik, ixilik gaude, edo gure hizkuntza sakelari atxikitzen dugu mukanesaren azpian gorderik.

Hortaz oharturik, hemen bilduak giren 7 elkarteek, pentsatu dugu, ez ginuela gure nortasunaz ahalge izaiteko arrazoinik, eta beste leku ainitzetan ikusten den bezala, ordu zela jendea, dakien euskara apurraren baliatzera gomitatzeke.

Euskaldun denak gainera, bi hizkuntza badazki, eta ezin da erran frantsesa baizik ez dakitenen aldean, berak ahalgetzekorik duenik, alde hortarik seurik.

Hortakotz, zuretzat egina da liburu hau. Harrazu eskuetan, irakur zazu eta mintza giten ondolik.

Mintza giten, heia zinez balio zaukunez gure hizkuntzan bizitzea, harremanak sortzea eta biziaz egiten den bezala, gozatzea...

Duela 100 edo 50 urte ez bezala, euskarak haizea alde du egun. Orduan ez bezala, hizkuntzaren ikasteko tresnak badira, hasi ikastola edo gau eskolatik. Kultura mailan, herriko etxeetan, lantokietan, ... espregu pollitak eginak izaiten dira urtetik urtera.

Tresnak badira eta orai dira baliatu behar.

Edo zerbait egiten dugu egun guzietako urratsetan, edo sekulako galduko da.

Badakigu koropilo hunen funtsa lurralde huntan berean kokatzen dela, Amikuze barne, eta ez beste nihun. Dakigun bezala gure esku dela hein haundi batean.

Hea zu ere, abian den trein hortara igaiten ziren.

Denak betan, aintzinekoekin bezala ondokoekin...

**...Amiñi bat, amiñi bi, euskaraz giten bizi !**



# INTRODUCTION

**« Je ne comprends rien, ou si peu, à cette langue, et voilà que je me mets à lire ce livre aux trois quarts en basque.. »**

S'intéresser, découvrir une langue, évidemment, c'est à chacun à faire la démarche. Il est aujourd'hui admis que la richesse est dans la différence, sinon pas besoin d'euskara, le français suffirait à tout le monde, ...non l'anglais plutôt... à moins que le chinois ne fasse l'affaire.

Au-delà d'une justification à exister, ceci est une invitation à prendre le train de l'histoire qui est aujourd'hui en faveur du multilinguisme comme de la biodiversité. Il y a ici comme ailleurs une manière singulière d'être citoyen du monde, celle de vivre, partager et enrichir l'euskara pour soi d'abord, pour ses enfants ensuite, pour apporter une manière originale de penser et d'agir, de participer à l'humanité toute entière, du local au global comme on dit aujourd'hui.

L'euskara comme langue de vie, ni plus ni moins. Retrouver une place que cette langue avait encore il

y a deux générations, sans ostracisme, sans s'isoler des autres langues et du français que nous utilisons ici même.

Ce pari se joue ici, maintenant et nulle part ailleurs. Il y a aujourd'hui la possibilité, les outils modernes nécessaires pour gagner ce pari: l'ikastola où nos enfants ont le moyen de devenir complètement bilingues, les gau eskola où des centaines de personnes motivées font des progrès impressionnants chaque année, une production culturelle originale et foisonnante, une vie associative empreinte de convivialité et de solidarité humaine, sans oublier l'attitude des institutions qui sont maintenant parmi les principaux promoteurs de l'euskara...

**Rejoignez vous aussi le train de l'histoire, et vivons tous les jours un peu plus en euskara...**



# AURki ZURE BIDEA

## SOMMAIRE

|                                                     |    |
|-----------------------------------------------------|----|
| Sar hitza .....                                     | 3  |
| Introduction .....                                  | 5  |
| <b>1 Hizkuntzaz...</b> .....                        | 9  |
| <b>L'euskara en jeu !</b> .....                     | 17 |
| <b>Euskara ikasteko / Apprendre le Basque</b> ..... | 23 |
| <b>2 Historiaz...</b> .....                         |    |
| <b>L'histoire d'Amikuze en quatre zooms</b> .....   | 27 |
| <b>3 Literaturaz...</b> .....                       |    |
| <b>Amikuzeko idazle eta kantariak</b> .....         | 41 |
| <b>Testu hautatuak</b> .....                        | 44 |





# HIZKUNTZAZ

***Lehen entzuten zen usu, « euskara ?  
euskarak ez du deusetarako balio ! ».  
Orai berriz, entzunen duzu, euskara atxiki  
behar dela, aberastasuna dela, inportanta  
dela erroen ukaitea eta munduari gure  
kolorea emaita !***

## **EUROPAKO HIZKUNTZA**

Euskara, europako hizkuntza zaharrena da, eta ikerlari batzuen hipotesien arabera gure inguruko beste hizkuntzen ama-hizkuntza ere. Euskara izenpean ezagutzen dugun hizkuntza hau, gaur ezagutzen duguna baino eremu biziki zabalagoan mintzatzen zen duela zorbait mende, Akitanian behera omen... Urteekin, eremua galduz joan da eta gaur, zazpi probintzia bezala ezagutzen dugun Euskal Herriaren baitan hitzegiten da. Bainan bere lurraldean ere, ez du euskarak hizkuntza oso baten eremu guzia.

Geografiaz haratago ere bizitzen da euskara. Internetek, hedabideek, kultur espresabideek beste gisako eremu batzuetan bermatzen dute hizkuntzaren gaitasuna eta bitalitatea, eguneroko harremanetarik haratago, gure nortasuna, identitate eta memoriaren berme.

Halere, egoera larrian dugu euskara, minorian baita bere herrian, eta dakitenek ere ez dutelakotz egunero, eguneroko urratsetan erabiltzen, nahi izanik ere ezin.

Bizkitartean, hizkuntza hunen parioa hemen da egiten. Hemengo hizkuntza da, eta ez da beste nunbait konponduko afera hau.

## MIRAKUILUZKO IRAUPENA

Bitxiki, prebisio guzien kontra, hizkuntza hunek gaurdaino iraun du. Europako pasaia leku kurrituena izanki, jakin du berea atxikitzen, besteenetik hitz eta erranmolde frango hartuz, diotenaz jakintsunek. Sentsu komunak erranarazten dauku hartu bezainbat eman dukeela, eta pasaiako horiek, izan erromano, musulmano, franko ala erromes, gure hizkuntzatik beretu zituzketela zonbait hitz haiek ere balinba.

Inperio handien hizkuntzak, latina bezala, desagertu dira, eta gurea, administrazio zentralen eta herri buruzagien sustengurik gabe, beti hor da.

Aldatuz, bizitzea hori baita funtsean, belaunaldi bakotxak berea ekarriz eta bere beharrorduetara egokituz, euskara gure eskuetaraino, gure mihietaraino heldu da.

Eta gaur gal dadien beldur gira denak. Dakitenak eta ez dakitenak. Desager dadien behar dena egin dutenak eta salbatzeko larruturik arizan direnak berdin. Eta denak ber galdera ahoan gabilta : zer egin behar du euskarak ez dadin gal ? Heldu zaigun lehen errepostua hau da : milaka urtez egin duena, aldatuz joan aintzina, bere idurikoa izaiten segitzeko !

Eta bigarren xixtan, galdera berriz formulatzea gogoratzen zauku : ez du euskarak irautearen gakoa, euskaldunek baizik ! Euskara uztean, euskaldun jendea da desagertzen, pentsa eta bizitzeko molde bat, irri eta nigar egiteko manera batzu, kontzientzia kolektibo bat berea duena, frantsesak, bretoierak eta suomierak berea duen bezala.

***Euskara uztean, euskaldun  
jendea da desagertzen, pentsa  
eta bizitzeko molde bat, irri eta  
nigar egiteko manera batzu...***

## EUSKARA GU GIRA

Euskaraz mintzo naizenean, euskaraz pentsatzen dut, eta ele hortan, leheneko edo geroko euskaldunek baliatu hitzetaz bestalde, nik gaur erran nahi dudana ere bada, ene komunikatzeko ekintza hizkuntza hortan egiten dut. Hori ez da ordezkatzeko, ez da beste hizkuntza batean egiten euskaraz egiten dena, euskaraz egiten ez den bezala beste hizkuntza batean egiten dena. Hizkuntza bat beste batez ordezkatzeko delat erraiten denean, kultura bat beste batez ordezkatzeko delat diogunean bezala, eufemismoz mintzo gira. Egiaz, hizkuntzaz eta kulturaz aldatzen den jende hori, bere buruaz « beste » egitera behartzen da, sentsu literalean. Historian barna, ez da naturaltasunez egin izan den gauza bat eta ondorio hitsak ekarri dauzkigu honek guziak.

## ORDEZKATZE BASA

Hemeretzigarren mendean, uste aski zabaldua da badirela arraza gorenak eta arraza apalagoak, kultura nobleak, zibilisatuak eta unibertsalak, eta kultura « inkultuak », basak, garapen eskasekoak. Nunbaitik ere, hizkuntza gorenen zerrenda eta estatu zentralisten hizkuntz ofizialena parekatzen badira, ber-berak direla ohartzen gira. Hizkuntzaren gaitasunez baino, armadaren eta botere ekonomiko expansionisten presentziak du esplikatzen batzu kultura gorakoak direla uste dela. Eta beren jakitatea denetan hedatzea, ondorioz, ez da krima bat bainan salbamendu ekintza bat, basakeriatik eta ezjakintzatik ateratzeko kultur apalogoko horiek.

Azken finean, bigarren gerla mundialean ikusi dugu mailaketa mota horiek norainoko sarraskiak sortu dituzten, baina horraraino joan gabe ere, tesia horiek ondorio zuzenak izan dituzte gure sukalde zokoetaraino.

Ordutik aitzina, frantses eskola elebakarra, tokiko hizkuntzen baztertzaila eta jendeen mendeetako jakitateen suntsitzailea, denetara hedatua izan da. Egin zezaketen bestela : tokiko hizkuntza baliatu beste hizkuntzaz jabetzen laguntzeko, eta jendarte elebidun oso bat moldatu... Ez ! ordezkatzeko basaren bidea da hautatu. Bigarren gerla mundialetik landa da errota anbalatzen. Progrea eta modernismoa biziki fite hedatzen

dira urte horietarik aitzina eta begi bixtakoa da uzten ari den mundu zaharra (aita, ama, aitatxi, amatxiena) pobrea izaiteaz bestalde, euskaraz mintzo dela, eta alde guzietarik sortzen ari den mundu berria (gurea eta gure haurrena) diru eta konforra emaille izateaz bestalde, frantsesez mintzo dela.

Amikuzen, aztertu beharko litezken arrazoin soziologiko berezi batzuen ondorioz, mendialdean baino biziki denbora laburragoan gertatu da fenomeno hori. Menturaz, etxetiar familien presentzia handiarekin eta artoaren boom-ak ekarri « iraultzarekin », progreairen punpia nihun baino haundiagoa izan delakotz, edo berdin orduko herri buruzagiak oso frantsesdunak zirelakotz... Xuxen ez dakigu, baina eskolaren bidez lehenbizi, eta gero telebixta etxe guzietan sartzen delarik (goizetik arratsera etxe barnean mintzo den bakarra bera delarik jadanik), ikusten da bat-batean ez dela gehiago euskara

transmetitzen familietan : haurrak frantses elebakarrak dira, beren aitamek haurrean ikasi euskara ahanzten ari dute baliatu eskasagatik, eta aitatxi-amatxiek, arrunt euskaldunak sortzetik, frantsesa untsaxko menperatzen dute, etxeokokin komunikatu beharrorduren gatik baizik ez bada ere.

Geroztik, ikusi ditugu ainitz euskaldun beren euskaltasunaren herran bizi izan direnak, beren kondizione apalaren tatxa zikina, kultura eta hizkuntza horren kausa izan balitz bezala. Ahalgea, kulpabilitatea, biktimismoa... horra ze sendimenduri lotua den gure hizkuntzarekin dugun harremana azken mendean. Geroztik ikusi ditugu ere, suntsitze horren aitzinean, bortizki oldartu diren belaunaldiak, beren kultura eta hizkuntza zaharraren maitasunez.

Herra eta maitasunaren artean, ezin biziak hartua, hatsa normalki ezin harturik, estokan... horra gure hizkuntza.



## DESKULPABILIZATU BEHARRAZ

Orduan, gaur, heldu girelarik esplikatzera euskara gure xantza dela, galdu behar ez den aberastasun bat, bi hizkuntza menperatzen dituzten haurrak hobeki prestatuak direla bizirako, eta holako teolesiak.... Nola sinets, nola entzun, nola onart : « utzi dugunak zinan balio !!! »

Identitate krisiak, krisi minberak dira arras, eta bestalde, botereari behin obeditu duenak, hizkuntz ordezkatzeko horren dorpea haurrean bere larruan senditu duenak, ez da, ulertuko duzuenetz, hola eta hola hasiko bere egiteko molde guziaren aldatzen bat-batean, ideia eta asmoa zonbat nahi jenerosa izanagatik !

Ekologian bizitzen diren aldaketa eta mehatxuekin pareka daiteke gure problema : nolanahika arizanak gira, gauzak zikintzeaz eta funditzeaz batere arduratu gabe, eta undarrian, gaur ikusten dugu modelo hunek ez duela luzamenik izanen, jendearen osagarrian ondorio lazgarriak dituela, gero gehiago gusta dela, gerla sortzen duela ura sanao edo petrola ttilika bat dagoen gune guzietan eta hatsa hartzea bera susmagarri bilakatzen ari dela jakiten dugularik egiten duen lantzerra Japoniatik jin hodei batekoa dela...

Aldatzen dugu horrengatik gure bizimoldea ? Ez ! Edo biziki gutik. Eta biziki guti.

Bizkitartean, hori da gakoa, ekologian bezala hizkuntzekin, biodibertsitatearen alde egin beharra dugu. Kontsumismoaren kulturak aldi berean planeta xurgatzen du eta mendez-mende moldatu kultur diferentziak desagerrarazten. Euskararen defentsan edo promozioan ari girelarik, munduko 6000 hizkuntzen alde ari gira, denak zoin baliosagoak beren hartan.

Euskara hiltzen uztea, munduan 200 hizkuntzaz petik gelditzea da, denbora labur barne, eta ondoko belaunaldian, agian dotzena erdi bat... horietan frantsesak ez duelarik bere tiketa apentziarik ere irabazia. Hizkuntza bakarraren alde ari diren horiek, ustez frantsesaren alde eta beste hizkuntzen kontra, ohartzen balire... Balakikete gurea bezalako hizkuntza ustez ttipien bizitzen laguntzea dela berenaren defendiatzeko manera hoberena ! Bainan bego...

Iraganeko baino gehiago, horrek dauku erranarazten euskara geroko hizkuntza dela.

## TALOARI ITZULIA EMATEN ARI DA !

Azken 40 urteetan sekulako biziberritzea izan da hizkuntza hunen inguruan. Gaur eskola-ttipitik unibertsitatearaino erabilia da erakaskuntza hizkuntza gisa, gai guziak euskaraz eginak izaiten ahal dira. Euskara ez dakiten jende frango, edo kanpotik jinak edo etxetik erakutsi ez zaienak, atzemamen ditugu gau-eskoletan. Memento huntan, zer nahi kontseilu jeneraleko edo herriko etxeetako idazkari ari dira euskararen trebatzen AEKko formakuntzetan. Azken 40 urteetan, zonbat kantu berri, zonbat kantamolde berri, bertsulari eta artistek ez dituzte gure plaza eta salak inarrosi, zonbat « tube » ez ditugu denek xaramelatzen edozoin baskaritan... Irakurtzea maite dutenek aldiz, ez dakite nundik lotu, hainbeste da literatur hautua handitua : 1000 liburuz goiti argitaratuak dira urte bakoitz euskara hutsez, bakoitzaren gustuaren doia izanen da araz. Hedabideak ere agertu dira, euskarazko telebista, egunkaria, astekariak, magazinak, irratia badira... gure egun guzietako bazka. Lan munduan, enpresa batzuek urrats batzu egin dituzte, engaiamendu batzu hartu, ahal zen guziez euskara baliatzeko. Berdin gertatzen ari da herriko etxe batzuetan... Elkarte munduak sekulako bultzadak emanak ditu eta urrats frango abiarazi. Urrats horiek, elkarteez haratago, instituzio edo kolektibitate publikoek berenganatu dituzte... Orduan elkarteez beste behar batzu azaleratu dituzte, eta horrela poliki-poliki errota itzulikatzen ari da.



## INDARRAK BEHAR DEN LEKUAN EMANEZ

Bide hori eginez, emeki-emeki hizkuntzari buruzko jakitate bat bezala moldatzen ari dugu. Horra hemen, gaurko egoeran garrantzitsu bezala agertzen diren pondu zonbait :

### • Hizkuntzak, bizitzeko, funtzio batzu bete behar ditu :

- Hizkuntzak erabiltzen dira eremu desberdinetan, eta ondorioz erabilpen eremu horiek hizkuntzaren hainbat funtzio bezala ezagutzen dira : eremu pribatua / familiakoa / lanekoa / herri mailakoa / nazio mailakoa / internacional mailakoa.
- Adibidez, untsa ulertzen da inglesa dela gaurko internacional mailako hizkuntza. Desagertze bidean den hizkuntza batek aitzinetik zituen eremuak bedera-bedera galtzen ditu, azken finean familia baitako hizkuntza izaiteko edo azken beltzean hizkuntza pribatu soil.
- Euskarari nolazbait gainbehera hori ezagutu zaio. Gaurko gure erronka da galdu eremuak polliki-polliki bereskuratzea : familiakoa, karrikakoa, eskolakoa, lanekoa, administraziokoa, ... Internacional mailako hizkuntza izaita ez da gure erronka, nazio mailakoa ere ez da gaurkotz egingarri. Haatik, beste funtzio guziak betetzen ditu jadanik gure hizkuntzak Euskal Herriko xoko batean edo bestean. Ez dira jadanik ametsetakoak eta gure temaren gain da gauza diten giren lekuan ere.

### • Elebitasuna xantza bat da, tranpa bat ez denean :

- Jendeak dira elebidunak, eta hainbat hobe da horrela izaita. Bainan egoerak, ez dira nekez baizik elebidunak, aldian hizkuntza batean baizik ez baigira aritzen ahal. Denek ezagutzen dugu egoera hau : euskaldunen multzo batean sartzen bada erdaldun elebakar bat, denak erdaraz hasten gira. Hori ez da elebitasuna, ezen elebidunak izan behar dutenak euskaldunak baitira, eta ez baitzaie galdegiten erdaldun elebakarrerik euskarari buruzko urratsik egitea. Elebitasun mota hori helburu bezala hartzea, euskararen aldeko tolerantzia bat erakustea da, baina beste hizkuntzaren azpitik egon dadien betiere ; hizkuntza serioa, bide-seinaletan letra larri eta haundienekin dena, beste hizkuntza baita beti. Egiatzko elebitasuna posible balitz, gutienez bermatu behar liteke denek bi hizkuntzak badazkitela. Baliazterakoan bakotzak ikus lezake bere interesen edo nahien arabera, baina gutienez batean edo bestean aritu ahalko litake, egoerak galdegin orduko.

### • Euskara hutsezko guneak beharrezkoak ditu hizkuntzak :

Aitzineko bi oharren ondorioz, hizkuntzak bere-bereak dituen guneak – eta uneak – behar ditu. Jendearen hizkuntz funtzionamendua afektibitate eta emozioneeri biziki lotua da. Hizkuntza batean bizitzea gertakari bat edo beste batean bizi, ez da neutroa. Jendearen eraikuntzan parte hartzen dute gertakariak, eta gertakari horiek bizitzeko mementoan



**« Iraganeko baino  
gehiago, horrek dauku  
erranarazten euskara  
geroko hizkuntza dela. »**



baliatu hizkuntzak ere nolaz ez. Hil ala biziko kontua da gaur, beste hizkuntzentzat gertatzen den bezala, euskara hutsez funtzionatzen duten guneak izaitea.

#### • Norberak ditu egin behar urratsak :

Aitzineko ponduetan, ikusten dugu hizkuntzaren erabileraren baldintzak kolektiboak direla, denen artean obratu beharrak. Haatik, horrekin batera, norberak egiten dituen urratsak garrantzi haundikoak dira. Bakotzak bere baitan egun oroz urrats zonbait gehiago egin gabe, ezin liteke hizkuntza gaurkotz galduak dituen eremuetara berriz heda. Mintzatzetik hasten da, kasu emanez harremana euskaraz egiteari, ohartuz-geroz besteak ere zerbait dakiela. Multzo bat izanez geroz, solas serioa bezala arrailleria eta josteta euskaraz bideratzea gauza garrantzitsua da. Ondotik heldu da idaztea. Denek ez dugu ikasi izkiriartzen euskaraz, eta ez gira biziki ausart. Gauza bat seurra da : denak ikasle gira euskara kontuetan. Entseatu behar da, tronpatzen girelarik onartu, eta omore onez segitu. Gaur idazteko paradak ez dira eskas, hasi e-mailetarik, esemesak, fezbuk orria, xekak egitea, asteko komixioeen lixta, edo beste aktibitate noble zonbait. Idaztearen segidan, irakurtzea ere bada. Irakurtzea da menturaz norberaren hizkuntz-jakintza zabaltzeko bide errexena ... eta agian zailena, denbora berean. Edo ohidurarik ez da, edo errex ulertzen denean ez da gai interesgarria, edo interesgarria denean hiztegia eskupean behar da, ... bide hori hasten duenak badu indar doi bat egiteko. Baina indar hori egin orduko petigora segidan eztatzen da, ezen neke zena lehen aldian, bigarreneko errexa da, eta hirugarreneko, plazet bat.

#### • Bidea errextea hobe :

Hunek guziak ezin du izan gurutze bide pizu eta trixte bat. Kontrarioa izaitekotz. Euskararen berreskurapen mugimendua, hastetik pesta usainarekin nahasten da. Begira zonbat Korrika edo Herri Urrats, kantaldi, kontzertu, antzerki, bertsu, dantza, libertimendu, talo saltze, pesta horien muntatze eta desmuntatze otordu, eskukaldi eta elgar kurutzatze... Plazerrari, elgarrekin artzeari, harremanari - hartu eta emaitzari - lotua da gure eginbeharra. Hizkuntzaren paradoxetarik bat hau baita : bakotxaren intimoa dela, eta ber denboran besteekin harremanean ibilarazten gaituela.

Gaurko legalitateak ez dauku hizkuntzaren ofizialtasuna bermatzen, eta horren beharra ere baginuke. Haatik, jende multzo haundi baten nahikeri indartsurik gabe ere, ez dugu legea aldaraziko errex. Bada zer egin halere anartean, eta da ofizialtasuna *de facto* plantatzea giren lekuetan. Gure ofizialtasuna plantatzeak erran nahi du esku hartzen dugun leku guzietan, etxetik hasirik, karrika edo laneraino, ahal den heinean, euskaraz egitea. Nehork ez du ezin eginezkoa galdegiten, haatik urratsak egiten ahal direnean egin behar dira. Gehienetan, traba haundienak gure baitan ditugu, ez baigira ausartzen. Alta dena errexago da, menturatzea salbu.

## MENTURATZEA EZ DA INPROBISATZEN

« Txepetx » izengoitiz ezagutzen den soziolinguista famatuaren teorian, ikusten da hizkuntza baten erabileran, hiru etapa badirela (berak unti batzuekin erakusten du) :

1. **motibatua izaita,**
2. **jakitea edo ikastea**
3. **erabiltzea.**

Etapla edo unti bakotxa bete doi, besteak bazkatzen ditu : aski motibatua izanik, ikasten hasten naiz eta aski ikasi ondoan erabiltzera ausartzen naiz. Beste sentsura ere martxan da berdin : erabiliz gehiago ikasiko dut, eta horrek gehiago motibatuko nau.

Usaien aldatzea ez da sekula errexela. Motibatua izatea ez da aski, inguramen bat ere behar da.

Hobe espreguak egiteko ahala izaita egiazki abiatu aintzin, lagunak bihotza berotzeko, eta norbera aski indartsu sendituko denean, orduan bai, aldaketak bultzatzea dezake bere eta bere inguruko hizkuntz-hautuan.

Indarra senditzea diogunean, norberaren motibazioez bestalde, senditu behar dugu jende multzo bat badela ber sentsuan ari dena, eta horrek bai, indarra emanen dauku bide berrien urratzeko.

Entseguak egiteko tokiak behar direla diogunean, elkarte lanari pentsatzen dugu, dela ikastola, edo gau eskola, edo beste edozoin kultur elkarte, behin helburua euskaraz artzea dela argitua den ber (lehen baldintza da halere), barne hortan jendeak onartuko dauzu tronpatzea, apezpreska aritzea, eta entsegu berriak elgarrekin espreatzea.

Sentsu hortan dugu Amikuzen euskararen aldeko kanpaina hau moldatu aurretik.

**« Denak ikasle gira  
euskara kontuetan.  
Entseatu behar da,  
tronpatzen girelarik onartu,  
eta omere onez segitu... »**

## AMIKUZEN ERE, EUSKARAZ GITEN BIZI

Amikuzek, beste eskualdeetako euskaldunak behatzen balira, arrunt eskualde des-euskaldunduaren fama bildua du. Bizkitartean, beharriak doi bat luzatzen badituzu, jendeekin harremana kurutzatzen, beste nihun bezainbat euskara bada gure herrietan. Bainan ez da entzuten ! Haustura haundia bada oraino, eta hizkuntzaren aldeko motibazioa ahul aire.

Kanpaina hunen lehen helburuak horiek dira :

- motibazioa zerbaiten sortzea edo sortzen laguntzea ; ahul edo hiltzera doan itxinduren gainen ufako baten emaita, berpiztu dadin,
- barreiatuak eta atomisaturik bizi giren euskaldunak eta euskaltzaleak biltzea, indarra eta kuraia emaitako, euskaraz bizitzeko maneretaz mintzatzeko berriz,
- euskaraz funtzionatzen duten guneak itxuratzea, pesta eta airostasun guneak ahalaz, deneri erakusteko gaurko gaia dela hau, ez iraganeko nostalgia bat, ez bazterreko edergailu bat. Pentsatzen dugu etsenpluaren indarrak, gauzak plazan egiteak, agerian, zoin nahi diskurtso edo programek baino gehiago inpaktu dutela. Hasteko, batek bestea gabe ez duela sentsurik.

Minorian gira, ez da dudarik. Haatik euskarak beste hizkuntzak balio ditu bizirako eta hortakotz euskaraz bizitzeko dretxoak badugu beste nehorik bezainbat.

Gainera, hemen baizik ez gintaizke euskaraz bizi.

Bestalde, azken urteetan haizea itzulikatzen ari dela iduri du, han eta hemen. Guri dagokigu, mugimendu horren laguntzea, bideratzea eta indartzea, denen artean eta bakotxa bere xilotik...

... Amiñi bat, amiñi bi  
gaur, bihar, etzi  
zu eta ni  
euskaraz giten bizi !





# L'EUSKARA EN JEU

***Quand le docteur Martin MINVIELLE, ancien interne des Hôpitaux de Paris, à son retour à Labets-Biscay, inquiet de la manière dont les enfants étaient élevés, écrit en 1939 un « petit traité de puériculture » à destination des jeunes mamans d'Amikuze, il le fait en basque.***

***En 1939, pour s'adresser au plus grand nombre il fallait faire ainsi, tout naturellement. 82 ans plus tard, nous voulons vous parler de l'importance de cette langue et de cette culture, et, pour s'adresser au plus grand nombre, nous devons le faire en français.***

Nous sommes intimement convaincus, en effet, qu'il ne sert à rien de discourir pour sauver une langue : il faut juste la parler, la vivre, penser avec, la transmettre, l'apprendre un peu plus tous les jours, la réinventer, rire et pleurer avec, oublier qu'on l'utilise et qu'elle nous sert à rencontrer les autres, à interpréter le monde à notre manière, la planète entière et les profondeurs de l'univers...

Que s'est-il passé pour que la roue tourne si vite, qu'on balaie d'un revers de la main ce qui a été le naturel de ce pays depuis des millénaires ?

## COMMENT EN EST ON ARRIVÉ LÀ ?

Une conception de la culture a été en vogue et a trouvé toute son expression durant le 19<sup>e</sup> siècle : toutes les cultures ne se valent pas, ne sont pas égales, n'ont pas le même intérêt. On parlait alors de « races » supérieures ou inférieures. Concernant les langues, certaines étaient plus à même d'amener leurs locuteurs à l'universalité ou l'intelligence, et d'autres, vous l'aurez compris, à la barbarie. Et les races supérieures avaient même le devoir de rendre « intelligents » les races inférieures.

C'est au nom de ces principes qu'une partie de l'humanité a été dépossédée de son histoire, de sa mémoire et de sa singularité, sans oublier les dommages irréparables des nombreuses guerres du 20<sup>e</sup> siècle...

Plus près de nous, le système scolaire qui a été mis en place depuis cette époque a tiré un trait brutal sur toutes les cultures qui préexistaient dans l'hexagone, et il y en avait beaucoup. Le français a été la langue de l'administration, et après guerre, celle de l'expansion économique, de l'intégration sociale, de la télévision et du modernisme en général.

Le Dr Minvielle, lorsqu'il écrit son ouvrage, le fait à l'attention d'une génération de jeunes mères capables de lire en basque un livret de 43 pages traitant en détail sur 3 chapitres de la manière d'élever les enfants :

- le premier âge : le nouveau-né jusqu'à un an,
- le deuxième âge : de un à sept ans,
- les maladies infantiles.

Aujourd'hui, les descendants directs de ces dames vont à l'école en maîtrisant parfaitement le français et sûrement pas un mot de basque pour la plus grande majorité d'entre eux. Certains n'auront peut-être même pas conscience qu'il existe ici une langue et une culture pourtant en pleine effervescence et renouveau ces dernières décennies. Seuls un tiers d'entre eux rencontreront l'euskara à l'école, que ce soit en système bilingue ou immersif, chanceux qu'ils sont !

Parmi ceux là, une partie n'arrivera pas à en acquérir toutes les subtilités, du moins pas à la sortie du primaire, du fait de l'omniprésence du français. En fait, seuls les systèmes d'enseignement immersifs permettent une acquisition du

***« Défendre les langues, les utiliser hors des modes, c'est comme défendre la biodiversité, la tolérance à la diversité, et la transmission de multiples stratagèmes inventés par l'être humain pour vivre sa vie. »***



français et du basque à un niveau satisfaisant à l'âge de 11 ans.

Mais c'est déjà une grande victoire, un pas en avant énorme, impensable et inimaginable il y a 40 ans.

## **CAR, AU FOND, QU'Y A T'IL EN JEU ?**

Il y a un intérêt individuel évident. L'acquisition de plusieurs langues, et ce, d'autant plus si elle se réalise dès le plus jeune âge, permet à l'enfant d'ouvrir ses horizons, lui ouvre des potentialités notamment dans tout ce qui est passage d'un langage à un autre (les langues bien sûr, mais aussi les mathématiques, l'expression artistique, ...). Les spécialistes qui étudient ces questions le prouvent tous les jours, et il y a, de par le monde plusieurs pays qui mettent en oeuvre des programmes immersifs dans leurs écoles.

Nous faisons référence ici non pas à un saupoudrage de quelques notions folkloriques, mais à une acquisition qui permette à l'individu de passer d'une langue à l'autre, et de pouvoir l'utiliser pour tous les actes de la vie, parler couramment, lire, écrire...

Plus particulièrement pour la langue basque, l'enjeu est qu'elle est ici chez elle, que nulle part ailleurs la question de son existence ne se pose, et que sa survie se joue ici... (et maintenant !).

Contrairement à un cliché assez répandu, la défense active de la langue n'est à aucun moment teintée de nostalgie, de retour en arrière, de recherche d'un hypothétique Eden ou paradis perdu, imaginaire ou réel... Les personnes qui aujourd'hui se donnent les moyens de vivre cette langue et cette culture le font consciemment et par choix. Contrairement à leurs grand-mères, ils sont tous bilingues, ils connaissent le français, sa culture, et de la même manière l'euskara et son univers. Cette langue ne vient pas en concurrence à l'autre, n'entre pas en conflit pour autant.

C'est plutôt l'abandon de la langue qui fige son folklore en culture du passé, ou en répétition continuelle qui a perdu

toute sa force de communication avec sa communauté.

L'euskara, contrairement à la vision du passé, n'est pas un danger pour le français. Plutôt un allié, pourrions-nous dire.

Sur les 6000 langues vivantes de la planète, d'après l'UNESCO, seules 200 sont assurées de se perpétuer dans un avenir proche. Dans ce scénario, le basque est en danger. Nous pensons que si ce laminage se produisait, il n'y aurait donc plus que des langues dites puissantes aujourd'hui, mais que la compétition qui aura permis d'en faire disparaître autant, ne s'arrêterait pas là. L'anglais, le chinois peut être, auraient toutes leurs chances pour prendre la place des futures condamnées à l'oubli. Il n'est pas dit que la langue française sorte gagnante à ce jeu là.

Défendre les langues, les utiliser hors des modes, c'est comme défendre la biodiversité, la tolérance à la diversité, et la transmission de multiples stratagèmes inventés par l'être humain pour vivre sa vie.

Les langues naissent, vivent et meurent nous dira t'on. C'est vrai, mais jamais de mort naturelle, elle est d'abord programmée. D'une certaine manière, pour ceux qui sont d'un naturel optimiste, cela veut dire qu'on peut changer de programme et organiser les choses différemment. C'est ce qui se passe chez nous, grâce à un mouvement de fond qui est en train de remonter la pente petit à petit, pour que l'euskara retrouve sa fonction de langue à part entière en ce 21<sup>e</sup> siècle.

Ce mouvement d'une détermination et d'un esprit d'innovation rare, a réalisé des prouesses sur plusieurs plans. Les spécialistes de socio-linguistique pointent plus particulièrement les points forts suivants :

- **Standardisation de la langue par l'Euskaltzaindia** (Académie de la langue) : pour devenir une langue moderne, d'enseignement et de recherche, le saut qualitatif a été fait il y a 40 ans maintenant. Depuis, l'euskara est langue d'enseignement et de recherche aussi bien scientifique que littéraire depuis la petite enfance jusqu'à l'université.

- **Généralisation des ikastolas et écoles bilingues** : les ikastolas enseignent la langue par la méthode immersive et permettent ainsi à l'élève, et ce même s'il n'a aucune notion de basque jusque là, de maîtriser parfaitement cette langue

à la sortie du primaire, au même titre que le français. Ce mouvement, qui a connu des débuts difficiles, fait complètement partie du paysage maintenant, et accueille chaque année de plus en plus d'élèves de la maternelle jusqu'au baccalauréat. Parallèlement, les écoles bilingues ont vu le jour et accompagnent le mouvement. Actuellement, sur la partie française du Pays Basque, 50% des écoles proposent un enseignement immersif ou bilingue, et un tiers des élèves y souscrit.

- **Enseignement aux adultes** : le système le plus connu est celui des gau-eskola. Au travers de cours du soir, de formation professionnelle ou de stages longue durée, l'alphabétisation des adultes suit son chemin. Ces dernières années, plusieurs stages professionnels ont été mis en place suite à la sollicitation des personnels de mairies ou collectivités territoriales locales. Ce phénomène laisse présager des avancées significatives sur le plan de l'accueil au sein des différentes administrations du territoire.
- **Le renouveau de la chanson** basque a marqué des générations de jeunes et moins jeunes. Ce mouvement qui a éclos vers les années 1970, a constitué un boom culturel sans précédent et pour beaucoup d'entre nous le déclic psychologique qu'il a fallu pour nous débarrasser de la honte et de la culpabilité qui ont submergé les générations précédentes. Ce mouvement de la chanson, même s'il semble s'être essouffé un peu ces derniers temps, est toujours bien présent, en pleine mutation et présente des promesses d'avenir à n'en pas douter.
- Un boom comparable a traversé **le bertsolarisme**. Ces improvisateurs ont acquis maintenant une notoriété sans précédent, et arrivent à mobiliser des milliers de personnes tous les 4 ans pour leur finale nationale. La transmission de la technique se fait aujourd'hui dans les écoles de bertsus, véritable lieux d'apprentissage des finesses de la langue, de la joute verbale et de l'improvisation versifiée. A chaque championnat, nous constatons qu'une nouvelle génération vient défier la précédente, preuve que la discipline est en bonne santé.
- **La littérature** est sans doute l'autre domaine qui a exploré ces dernières décennies. Invariablement, depuis quelques années, plus de 1000 ouvrages en euskara sont édités. De

grands noms se dégagent aujourd'hui, et beaucoup d'auteurs explorent des pans littéraires différents, pour le plus grand plaisir d'un lectorat d'âge et de goût aussi divers que variés.

- **Une multitude de médias co-existent actuellement.** Cela va de la télévision au média local, en passant par un quotidien et des magazines ou hebdomadaires de grande qualité. Les radios locales en sont ici l'élément le plus présent, et on ne mesurera jamais assez leur importance dans la normalisation de l'euskara dans notre environnement.
- **Le monde du travail** n'est pas en reste, même si longtemps il est resté à la marge de ce mouvement. Depuis la convention « Bai euskarari » qui avait rempli en live 3 grands stades du Pays Basque (Biarritz, Pampelune et Bilbao), plusieurs entreprises ont mis en oeuvre des actions visant à fonctionner en euskara au sein de l'entreprise dès lors que cela était possible.
- **Les collectivités publiques** sont maintenant partie prenantes également. L'officialisation de l'euskara est effective sur 3 des 7 provinces (Araba, Bizkaia et Gipuzkoa) et sur la moitié du territoire de la Navarre. Ici, de grandes avancées ont eu lieu durant la dernière décennie. Ces actions sont maintenant coordonnées et appuyées par l'Office Public de la Langue Basque et un maillage du territoire est assuré par des techniciens de la langue basque.
- **Le monde associatif** est très présent dans cet univers. Beaucoup de réalisations, pour ne pas dire toutes, ont été impulsées d'abord par des associations. Au fur et à mesure de leur développement certaines de ces associations se sont développées et spécialisées, et ont pris d'autres formes, pour devenir des institutions ou même des industries (livres, disques, ...). Mais le monde associatif existe toujours et est souvent le pionnier de nouvelles expériences, de nouveaux projets. Actuellement, nous voyons apparaître un besoin autour de la création d'espaces ou de lieux pour impulser l'usage la langue là où le contexte linguistique le rend difficile. C'est un peu dans cette lignée là que se situe le groupe qui est à l'initiative de cet ouvrage.

Ces différents points forts, qui, nous ne sommes pas dupes, ne peuvent pas totalement masquer de nombreux points



**« Toutes les langues se valent, car elles servent à communiquer et relier les êtres humains entre eux.**

**Plutôt que de compétitions entre elles, nous préférons parler de vision complémentaire »**

faibles, nous font dire que l'aventure est dans la bonne voie, qu'il y a lieu d'espérer pour l'avenir.

En fait, si l'euskara a failli disparaître en une ou deux générations, l'inverse peut également se produire dans le même laps de temps. Nous parlons ici d'un projet dans le temps, rien n'est et ne sera acquis en une génération, il faudra, au delà de notre volonté et de nos réalisations, l'audace et le courage de nos descendants pour y arriver, mais c'est possible.

Dans ce pari, ce qui est important, c'est l'impulsion que chacun de nous peut donner dans le bon sens. Chacun, à sa mesure, peut aider à faire des miracles.

Ou bien nous appuyons l'accélérateur dans le sens d'un monde où l'uniformité basée sur la consommation sans lendemain est reine, la massification et l'isolement sont le lot quotidien, et alors autant passer le cap et commencer à apprendre l'anglais...

Ou bien nous avons notre mot à dire sur la tournure des événements, nous sommes partie prenante de notre

environnement social et culturel, nous participons à la re-création permanente de la vie, nous souhaitons que nos descendants partagent notre pari de la biodiversité linguistique et culturelle, ... et nous faisons le pas dans la direction de l'euskara !

Le sujet de la langue n'est pas un sujet facile. Il évoque encore pour nos aînés le temps de la honte, des brimades et de l'interdit. Il nous revient de corriger ce mauvais tour de l'histoire. Toutes les langues se valent, car elles servent à communiquer et relier les êtres humains entre eux. Plutôt que de compétitions entre elles, nous préférons parler de vision complémentaire, vision d'un monde où le multilinguisme a toute sa place, et où l'euskara, au même titre que les autres langues a droit à son habitat, c'est à dire toutes les dispositions imaginables à notre époque pour se développer et rayonner.

A chacun de nous de faire des pas dans la bonne direction... ■

# Amikuzeko ikastolak

1971-2011

# 40

urte

Amiri bat

Amiri bi





# EUSKARAZ ERE IKASTEKO●ESKOLA!

***Gaurko egunean, Amikuze guzitik, 70 ikaslez goiti ikastolan ibiltzen dira, gela zabal eta berrietan. Hezkunde nazionalak ditu erakasleak ordaintzen, eta lehendanik laneko manierak ainitzez errextuak dira.***

Amikuzeko Ikastolan, imertsio sistimari esker, haurrak ikasketa guziak euskaraz segitzeaz gain, euskaraz komunikatzen, jostatzen, pensatzen eta bizitzen ikasten dute.

Goizetik arratsera, haurzaindegian, kanpoko tenoretan ala kantinan, zaintzale eta erakasleak eskualdunak izanez, harreman guziak euskaraz izaiten dira. Hizkuntzaren plazerra emaitako, antzerki, kantu edo bertsoak lantzen dituzte, joko mota frango baliatzen, edo tokiko artixtak elekatzen.

Horren helburua haurreri ingurumen eskualdun baten eskaintzea da eta, ahal badute, burrasoak joko hortan sarraraztea, familia guzia euskaraz goxatzeko gisan.

Ikastola da orainokoan, imertsio sistema hori dela medio, eskola elebidun guzien artean, haur bakotxari frantsesa eta euskara, 11 urtetarako, biak hein berean jakitea segurtatzen duena.

Lekuko ikastolatik landa, haurrek sail berdinean segitzen ahal dituzte beren estudioak, adibidez Lartabaleko kolejio berrian, eta berantago baxoraino heltzeko parada badute Baionako lizeoan : ikasketa guziak euskaraz eginik ere, baxoko azterketa gehienak frantsesez iragaiten dira eta beste sistimetan bezain emaitza onak dituzte ikastoletako ikasleek.

Azken urte horietan ere, EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) azterketa prestatzen eta aurkezten dute. Etsamin horrek segurtatzen du gazte horiek euskararen maila ona dutela. Gero eta gehiago gertatzen da, lan eskaintzetan galdegina dela euskara jakitea, eta gisa hortan haur horiek abantail bat gehiago badute lan baten atzemaiteko tenorean.

## L'IKASTOLA, UNE ÉCOLE OÙ ON APPREND EN BASQUE ET EN FRANÇAIS.



Amikuzeko Ikastola est un établissement incontournable dans le paysage scolaire du canton, offrant à nos enfants une réelle possibilité d'apprendre, de grandir et de se construire en Euskara, tout en permettant aux parents de s'impliquer au plus près dans cet apprentissage.

Le système immersif qui y est développé, est le seul qui permette à l'enfant de maîtriser invariablement l'une ou l'autre langue, quelle que soit la langue maternelle de l'enfant et celle utilisée dans sa famille.

De nombreux parents d'ikastola, et nous avons là dessus une expérience longue de 40 ans, ne maîtrisent pas l'euskara, mais cela n'empêche pas leurs enfants de communiquer de manière impeccable aussi bien en français qu'en basque.

Ce système permet l'éveil de l'enfant aux différences, aux extrapolations et à la comparaison, autant

d'apprentissages reconnus utiles ensuite pour apprendre les autres langues, les mathématiques, la musique, ou tout autre discipline artistique.

Chaque année, une nouvelle génération d'élèves quitte le lycée des ikastola, basé à Bayonne, le baccalauréat en poche.

Les enfants ont des ressources et des capacités insoupçonnables pour apprendre les langues, il est dommage de ne pas en profiter.

Devenu adulte, apprendre une langue n'est pas aussi aisé, combien de jeunes, en Amikuze comme ailleurs, n'ont-ils pas regretté que leurs parents ne leur aient pas donné cette possibilité quand ils étaient petits.

**Parents, donnez une chance à vos enfants, la chance que peut être vous mêmes n'avez pas eu...**

## KONTAKTATZEKO :

>> AMIKUZE IKASTOLA :  
Tel. 05 59 65 83 01  
Mail : [ikastola.amikuze@wanadoo.fr](mailto:ikastola.amikuze@wanadoo.fr)  
<http://amikuzeko-ikastola.eklablog.net>

>> GAU ESKOLA :  
Tel. 05 59 65 89 21  
Mail : [amikuzeko.gaueskola@wanadoo.fr](mailto:amikuzeko.gaueskola@wanadoo.fr)  
[www.aekide.net](http://www.aekide.net)

## APPRENTISSAGE DU BASQUE POUR LES ADULTES

Si tu souhaites apprendre l'euskara, le perfectionner, apprendre ou ré-apprendre à le parler, essayer de dépasser la peur de faire des fautes, ... Viens nous rejoindre à la gau-eskola d'Amikuze.

Nous t'expliquerons comment nous travaillons, les horaires (en journée comme en soirée), les différents systèmes (cours hebdomadaires ou stages intensifs), les possibilités de prise en charge financière, les animations proposées, et les étapes à franchir pour arriver à ton objectif.

# AMIKUZE-●ZTIBARREKO GAU ESKOLA - AEk

Badu 30 bat urte orai, Amikuze-Oztibarreko Gau Eskola, euskara kurtsoen emaiten ari dela. Euskara ikasi edo hobetu nahi duten heldu eta gazteekin lan egiten du.

Bertan, aurten, urritiekainera, egunaz edo gauaz, Amikuzeko herri guzietako 53 ikasleek kurtsoak segitzen dituzte, maila ezberdinetan: lehen urratsetik seigarrenera. Horien segurtatzeko, 2 permanente eta 4 erakasle bolondresak lan egiten dute. Aste oso bateko ikastaldia antolatua da ere. Gau Eskolaren egiteko nagusia erakaskuntza balin bada, euskara sustatzen duten animazioak ere antolatzen ditu: Korrika, ateraldiak (adibidez Durangoko azokara, sagarnotegira, xiberoko maskaradara, mendira,...) edo apairuak. Ikastea untsa da, baina gisa hortako mementoetan, ikasiaren baliatzea da helburua, ahanztiz dudak eta nekeak, giro airosean dena errexago baita.

Bere inguruko beste elkarteekin ere lan egiten du, kantonamenduan euskararen bizia bultzatu nahi duten proiektuetan.







# HISTORIAZ

***Amikuze... Izen hori, iragan mendeetako  
oihartzun zaharretik heldu zauku.  
Eskualde hunen historia ez da,  
dudarik gabe, atzokoa.***

## AMIKUZE DANS L'HISTOIRE

### ZOOM SUR...

|                                                            |    |
|------------------------------------------------------------|----|
| La Préhistoire en Amikuze .....                            | 29 |
| Les vestiges de la Protohistoire .....                     | 30 |
| L'heure de gloire de Saint-Palais .....                    | 33 |
| Des prêtres patriotes aux "ennemis" de la république ..... | 37 |
| La prison de St Palais au 19 <sup>e</sup> siècle .....     | 39 |

# AMIKUZE, IRAGANEK MENDETAN ZEHAR

***Duela 900 urte, Erdi Aro betean,  
agertzen zen lehen aldikotz  
dokumentuetan, Amixa deitu lur bat.  
Arnaldo Gartzeiz, Akizeko bizkonte  
jaunaren semeak, errezebitzen zuen  
Amikuze, Oztibarrerekin bat, primantza  
gisa. Amikuze-Oztibarreko jaunak,  
Lukuze eta Agramont dinastiekin  
zerikusia zutenek, Historian sartzen  
ziren. Bainan, aitonen seme famili  
handien arteko harremanetan  
sartu gabe, aipa dezagun lehenik  
iragan oraino zaharrago bat, erroak  
Historiaurreraino luzatzen dituenak.***

## **HISTORIA AINTZIN...**

Historialari, arkeologo ala tokiko historiazeleek ereman ikerlaneri esker, badakigu egun Amikuzeko lurak jada okupatuak zirela duela 300 000 urte pasa, Paleolitiko Ertainean. Homo Neandertal, gure lehenkusi zahar bat da, garai hartan, Europan nagusi. Harribiribil eskailekin egin tresnak, harrizko aizkorak eta suharriak utzi dauzkigu erreka bazterreko mendixketan eta harpeetan (Arbotin Burgaintzi edo Burguen). Bainan hezurrik ez.

Gutarik hurbilago, Magdaleniar garaian (12 500 urte) Erangueko Buruila harpeak altxor frango entregatzen dauzkigu. Homo Sapiens (Gizon Modernoa) gure arbaso zuzenak du luzaz okupatu, utziz ihizi arrasto frango (basidi, orein, zaldi edo izokin hezurrak). Pirineo mendikate inguru guzian instalatzen da eta garai hartan, emeki, bertze gizon taldeetarik berexen da...

Neolitikoaren garaia dator eta harekin indo-europar migrazioak. Ekialdetik etorri jende taldeek heiekin ekartzen dute laborantza eta hezkuntza (azken hori jadanik hasia zen tokian berean). Duela 6 000 urte inguru orduan, gure eskualdean, gizona laborari eta artzain bilakatzen da. Ikerketek bertze konklusio bat aurkezten daukute: Ebrotik Garonaraino, bizi da berezitasun morfologikoak dituen gizon mota bat. Aita Barandiaranek "Mendebaldeko Pirineotar Tipoa" izena emaiten dako. Haren aktibitateen aztarnak aurkitzen dira Amikuzeko iparraldean, bereziki Erangueko harpean (hezurrezko tresnak, suharrizko geziak).

## PREHISTOIRE EN AMIKUZE.

Des prospections et des ramassages de surface, en particulier sur les hauteurs de Burgainzi et d'Astokotxo à Arbouet, ont permis de rassembler un important matériel lithique qui montre que ces secteurs ont été occupés depuis plus de 100.000 ans par Néandertal puis par Cro-Magnon.

Des bifaces, des hachereaux taillés dans les galets de quartzite de Néandertal se retrouvent mêlés dans les labours aux burins et grattoirs que Cro-Magnon façonnait dans le silex. Des emplacements de campements magdaléniens sont bien situés. Les haches polies, les meules du Néolithique ne sont pas rares sur les mêmes sites.

Lorsque Cro-Magnon est arrivé, il y a environ 40.000 ans, a-t-il cohabité avec Néandertal, l'a-t-il chassé ? Les scientifiques sont encore partagés.

Pourquoi pendant des périodes aussi longues les hommes qui nous ont précédé ont-ils choisi de s'installer sur les mêmes secteurs ? Des chercheurs essaient de trouver des explications.

Mais on peut émettre l'idée qu'Amikuze a toujours été une terre d'accueil.

CI. LAPENU



*Outils préhistoriques de différentes époques du secteur d'ARBOUET*

Migrazio fase berri batzuen ondorioz (Keltoak dira heldu), usaiak aldatzen dira. 2 000 K.a. (Kristo aintzin) hasten den Protohistorian, jendeen ehorzteko moduak aldatzen dira. Trikuharriak eraikiak dira eta berantago (600 K.a) baratze edo harrespilak, mendi eta lepoetan. Amikuzen egun, horrelako aztarnik ez da ageri, segur ere aspaldian deseginak izan baitira laborantxaren gatik. Halere, tumuli edo mendixka artifizial zonbaitzu ikusgai dira beti, haiek direlarik lehen bizi guneak.

Bainan garai hartako aztarna ikusgarrienak dira gaztelu zaharrak. Euskal Herrian atxemaiten diren ederrenetarik eta handienetarik bat da Kurku, Behauzen. 10 hektarako zabalduraz, mendixka baten gainean eraikia lurra karreatuz, lau defentsa hesiz inguratua da. Arkeologoen diote ez zela bizitoki permanentea izan, ihesleku gotortu bat baizik, jendeek defendiatzeko erabiltzen zutena. Gisa bereko eraikuntzak aurkitzen dira ere Behaskanen : Sardatz, Etxarrin eta Labetze Bizkain : Tuketak. Horrelako gotorlekuak, Baxenabarre osoan, baita Lapurdin eta Xiberun atxemaiten dira (Zerkupe Eihalarren, Larreondoa Senperen edo Ullumendi Urdirarben) : tokiko populazioen antolaketa gero eta aitzinatuago da.

## ERROMATARREN GARAIA : HISTORIAN SARTZEA

II.-I. mendeetan K.a sartzen dira Erromatarrek Garona eta Ebro ibaien arteko gunean. Pirineoen hegoaldean, Baskoien (Vascones) ezagutza egiten dute. Iparraldean, Akitaniarrak (Aquitani) garaitzen dituzte. Erromatarrek dute lehen aldikotz emaiten populu guzi horien izena. Eta Julio Zesar jeneralak berak berexen ditu Akitaniarrak Keltoetarik, erranez ez dituztela " usai, lege eta hizkuntza berak ". Aldiz, ohartzen da Akitaniarren aurka borrokatzen delarik, Pirineoen bertze aldetik heldu direla Baskoiak heien laguntzerat. Nahiz eta Baskoiak eta Akitaniarrak ez diren populu berak, historialariek diote bi ibai handien artean den guneak, batasun kultural bat baduela. Espazio hori deitzen dute Euskal eremua, populu horien arteko puntu amankomuna baita, toponimia (lekuen izenak) eta onomastikaren (pertsonen izen eta deiturak) arabera, erabiltzen duten hizkuntza, aurreuskara, edo proto-euskara.

Konkistatik landa, erromanizatzea hasten da. Garailearen ohiturak, sinesmenak eta usaiak sartzen dira denetan. Hiri batzu eraikiak dira (Akize eta Olorue, I. eta II. mendeetan), gehienetan, bertakoen



**KURKU, site protohistorique visible à Béguios, un des plus imposants de son époque.**



## LES VESTIGES DE LA PROTOHISTOIRE

Cette période à cheval sur la Préhistoire et l'Histoire (elle s'étend d'environ 2 000 avant JC à 700 avant JC) a été particulièrement étudiée par le général Gaudeul en Pays Basque.

Concernant le Pays de Mixe, ce dernier y a recensé plusieurs sites remarquables. Parmi ceux-ci, le plus impressionnant est l'ensemble fortifié de Kurku, à Béguios. Inscrit à l'Inventaire des Monuments Historiques, situé sur une colline de quelques 270 mètres de hauteur, d'une superficie de plus de 10 hectares, il est garni de quatre lignes de remparts (levées de terre), avec un fossé creusé au pied de l'enceinte du sommet. Habitat non-permanent, il servait, selon toute vraisemblance, de refuge en cas de danger pour les populations qui vivaient en plaine.

Kurku, qui faute de nouvelles campagnes n'a pas encore été étudié en profondeur, n'est pas le seul ouvrage de la sorte. Trois autres *gatzeluzahar* sont encore visibles aujourd'hui dans le pays de Mixe ; il s'agit de Sardatz à Béhasque et de Tuket (plus modeste) à Labets-Biscay et Etcharry.

Ce dont les archéologues sont certains, c'est qu'à cette période déjà, les peuples proto-basques qui en sont les auteurs, vivent dans une société élaborée, qui est parfaitement organisée et qui est en mesure de se défendre. C'est dans ce contexte qu'au 1er siècle avant notre ère, arrivent les Romains de Jules César, conquérants de tous les peuples situés entre Garonne et Pyrénées.



D'après "Amikuze, le pays de Mixe"  
Editions IZPEGI. Croquis de François GAUDEUL

bizitoki bat hartuz oinarritzat. Euskal eremua, hobeki ezagutua da. Akitaniarren artean, berexiak dira eskualdeka talde batzu: Tarbelliarrak Akizeren inguruan eta kostaldean Pirineoetaraino, Iluroneak Azpe ibarran... Amikuzen aldiz, ez dakigu xuxen nor den bizi. Lur horrek ez du oraino nortasun berezirik eta itxura guzien arabera, Tarbelli edo Iluroneen eremuan kokatzen da. Baskoien lurak aldiz, mendialdean dira mugatzen.

III.-IV. mendeetan, mansio (hiri ttipi) berri bat agertzen da dokumentuetan: Carasa (Garruze). Bordeletik Astorgaraino doan errege bidearen bazterrean eraikia izan da, Akize eta Donazaharrerren (Imus Pyraeneus) artean. Mende horietan dira girixtinotasunaren lehen aipamenak egiten gure eskualdean, Erromatar Inperioa krisi larri batean sartzen delarik.

## GARAI ILUNAK

V. mendean, Erroma ahuldua da eta Germaniatik etorri populu batzu sartzen dira Inperioko lurraldeetan. 416etik goiti, Bisigodoak instalatzen dira Akitanian, Tolosa eta Atura (Aire-sur-l'Adour) hartuz hiri nagusitzat. Emeki, zabaltzen dira Pirineoen bertze aldean ere, Baskoien kontra joz. Bainan Iparraldean, Frankoek lehertzen dituzte 507an.

VI.-VII. mendeetan, Frankoak entseatzen dira nagusitzerat Akitanian, orain Wasconia deitzen dutena. Vascones delakoen izena emaiten dakote lurralde huni, nahasten baitituzte Akitaniarrak Baskoiekin, duten kultur komunaren gatik. Bainan garaipena ez zaie batere errex, bertako famili bat nagusitzen baita Wasconian (Gaskoinia), dukerri azkar eta aske bat sortuz. VIII. mendean, Karlomano errege frankoak Gaskoinia bere menpe jartzen du. Eta harek antolatu Karolingiar inperioko lurralde ximple bat bezala kudeatzen du. bainan IX. mende erdian, Inperioa ahulduz doalarik, berriz ere bertako famili batek poderea hartzen du. Gaskoiniako dukerria berpizten da, sekulan baino independenteagoa.

Gaskoiniako dukeek izendatzen dituzte ahaideak lurraldeaz arduratzeko. Biarno, Akize eta Olorueko bizkonterriak sortzen dira. Jaun horiek, jaun dukea balire bezala bezala jokatu, zatitzen dituzte beren lurak ondokoen artean, beren gain har dezaten jaurgoaren zati baten kudeaketa eta defentsa. XI. mendean zehar, Akizeko bizkonterria partekatuz, Tartaseko jaurgoa sortzen da. Antolatzen den piramida hierarkiko hori, feodalismoa deitzen da.

1065ean, Akizeko bizkontearen ondokoek lurak partekatzen dituzte: Ramon anaiak, bizkonterriaren kudeaketa orokorra bere gain hartzen du. Arnaldo, seme gehienak Amikuze-Oztibarreko jaurgoa eskuratzen du eta Bergoi gazteenak, Burgue-Garruze-Agramontekoa. Azken jaurgo hori egoiten da halere Amikuzeko jaunaren manupean. Amikuzek badu orain izaite bat, lurralde zehatz bat bilakatu



### **GARRUZE PELEGRINIA.**

***Hirugarren mendean jadanik dokumentuetan agertzen da Garruze herria, "Carasa" izenpean.***



### **JUAN II ARAGOIKOA**

***Hemen dugu Juan II Aragoikoa, delako errege usurpatzailea: bere semeari ebasten dio korona, ama zentzen zaiolarik. Untsalaz, orduko legeen arabera ez zuen berak izan behar errege baina bere seme Karlosek. Orduan da gerla zibila pizten : Beamontesek sustengatzen dute Karlos printzea, erregegai zilegia, eta Agarramontesek berriz, Juan Aragoikoa.***

da. Ondoko belaunaldiarekin, jaurgio berri bat agertzen da oraino: Lukuze-Izura-Landibarre. XII. mende hastapenean orduan, 3 adar nagusiak hor daude, hiruak Akizeko jaurgotik ateratzen direnak.

## **AKITANIA ETA NAFARROAREN ARTEAN**

Hamarkadaz hamarkada, Gaskoiniako noblezia urrundu da dukeen eraginetik. 1080 irian, Poitiers-ko konteek, Gaskoinia lotzen dute beren ontasuneri, Akitaniako dukerri zabal bat berpiztuz. Kontestazioaren garaia hasten da Gaskoinian, tokiko jaunek ez baitituzte onartzen Iparraldetik jin maniak. Laguntza atxemaiten dute Pirinoen hegoaldean, 824etik landa indartu den Nafarroko erresuman (Baigorri, Garazi, Ortzaize eta Arberuko eskualdeak eskutan ditu jada). Dukearen kontrako oldartzeak lagunduz, Santxo Jakintsunak bereganatzen ditu fidelitateak. 1196ean, Tartaseko bizkontea, Akize eta Amikuze-Oztibarreko lurraldeak bateratu dituen, Santxo Azkarraren peko jartzen da. 1203an, Bibiano, Agramonteko jaunaren aldi da. Lekuko gisa, tokiko jauntxoak jin arazten ditu: Behauze (Beguios), Martxuta (Mans Barrauta), Gamue (Camo), Arberatze (Erberaz), Zokoze (Trussa Callau) eta Bithiriñeko (Anciburua) jauntxoek izenak agertzen dira. Amikuztarrek hautatu dute: Nafarroaren alde jarri dira, Akitaniaren kontra.

XIII. mendean, egoera argitzen da. Agramontek jasan behar baditu dukearen erasoak, bilakatzen da Nafarroko ricombre, erregearen 12 baroi handienetarik bat. Iruñeko gortean ibiltzen da orain. 1228an, Lukuzeko jaunaren aldi da peko jartzea (1270an, segitzen du bere erregea Tuniseko Kurutzadan). Hemendik goiti, Nafarroko erregeak jaun eta jabe dira Amikuzen. Lurraldea eratxikia da erresumari, nahiz eta bere berezitasun administratiboak atxikitzen dituen. Itxura guziren arabera, garai hartan dute erregeek iriberri (bastida) bat sortzen Biduza (Lapiotze) ibaiaren bazterretan, Sant Pelay (Dona Paleu).

1316an, Amanieu de Labrit (Albret), Tartaseko jaun berria, Amenduzerat etortzen da Amikuztarren biltzarraren zuzentzeko Nafarroko erregearen adostasunarekin. Amikuzeko foruen berridazketa agintzen du, biztanle batzuk nobleen gehiegikeriak salatu baitituzte. Amikuzeko gorte orokorraren lehen aipamen idatzia da: jaun, apez eta laborariek osatua da. XIII. mendean orduan, Amikuztarrek badituzte jada beren foruak, eskubideak eta eginbideak finkatzen dituen dokumentu idatzia. 1316an, Araudi penala zehaztua da bainan bi famili nobleetarik, bat falta da, Lukuze. Giroa nahasten ari da aitonen seme leinuen artean... Anartean, Donapaleuk garapen eder bat ezagutzen du : hiri-on titulua eskuratzen du. 1351an, erregearen moneren jotzeko tailer bat idekitzen du eta merkatu baten egiteko eskubidea du.

XV. mendean, dinasti arazo larri baten gatik, Nafarroko erresuma gerla zibilan hondatzen da. Bi noble bando afruntatzen dira : Agramontesak, Juan de Aragon errege usurpatzailearen aldekoak (bere emazte zenaren korona atxiki du beretzat,

bere semeari ukatuz) eta Beamontesak, Karlos errege zilegi bainan ukatuaren aldekoak. Lukuztarrak, Baxenabartar frango bezala, Beamontesen alde jartzen dira. Heien ospea handituz doa: Atharratzeko jaunak dira orain, baita ere Nafarroko ricombreak, Agramonteko jaunak bezala.

## NAFARROTIK BAXENABARRERAT

Frantziako erregearen basailu diren Labrit-Foix-Biarnoko printzeak, Nafarroko korona jaunzten dutelarik 1483an, Agramontesak Frantziari hurbiltzen dira. Beamontesak, Gaztelari buruz itzultzen dira. Gerla zibila, nazioarteko gatazka bat bilakatzen da. Eta 1512an, Gaztela-Aragoiko erregeak inbaditzen duelarik Nafarroa etsitua, Lukuzeko jauna ondoan du. Gaztelar armadak zabaltzen dira Bidaxuneraino eta errege-erregin zilegiek ihes egin behar dute Biarnorat. Amikuze fite libratuz



**Donapaleuk, 1351an, erregearen moneren jotzeko tailer bat idekitzen du. Argazkian Baxenaberreko monera bat.**

## LE XVI<sup>e</sup> SIÈCLE, HEURE DE GLOIRE DE SAINT-PALAIS

Le grand royaume de Navarre, conquis par les armes en 1512 et perdu définitivement en 1522 n'est plus qu'un rêve pour les Albret, dernière dynastie régnante à Pampelune.


Malgré tout, Henry II. d'Albret continue de revendiquer le titre que ses ancêtres ont perdu. Il réorganise ainsi un second royaume de Navarre, sur les terres d'Outrepports laissées à l'abandon par le conquérant castillan. Ce nouveau royaume de Navarre est plus tard appelé " Basse Navarre ". Étant princes de Béarn et comte de Foix, les Albret installent ainsi l'ensemble de l'appareil administratif à Saint-Palais, près du Béarn où ils résident le plus souvent (au château de Pau), délaissant la capitale historique Saint-Jean-Pied-de-Port qui conserve néanmoins son caractère militaire.

Saint-Palais devient donc le siège de la Chancellerie du royaume (chambre de justice), de la chambre des comptes, du conseil royal (principalement composé de conseillers béarnais qui ne connaissent pas forcément les coutumes navarraises et dont les habitants se plaignent régulièrement) et l'atelier de frappe de monnaies du royaume. La ville s'anime, le commerce s'y développe. Elle a même parfois l'honneur de recevoir les États Généraux de Navarre, grande réunion qui rassemble le représentant du roi ou le roi lui-même, les délégués des vallées et pays du royaume, les représentants du Clergé et des maisons nobles. Saint-Palais y envoie deux députés, Garris deux autres. Le Pays de Mixe y dispose de trois représentants et la noblesse de plus d'une vingtaine de maisons.



**HENRIKE II (1503-1555)  
Roi de navarre.**

**Après l'invasion de la Haute Navarre par la Castille, il réorganise le royaume de Navarre à partir de Saint Palais.**



**JOANA LABRIT (1528 - 1572)**

**HENRIKE II.ren alaba eta  
Nafarroako erregina.**

**Protestantismora konbertitu  
zen eta Leizarragari testamendu  
berria euskarara itzularazi. Erlijio  
hautu horren gatik gatazkak piztu  
ziren Lukuzeko Xarlesek muntatu  
liga katolikoaren eta bere  
jarraitzaileen artean.**

eta Amikuztarren leialtasuna lagun, Labriteko Joan erregea, eta ondotik Henry II bere semea, entseatzin dira 10 urtez Nafarroaren berreskuratzera. Bainan 1522an, erresuma galdua da behin betikotz. Pirineoen hegoaldea eratxikia da Espainia berriari. Ipar Nafarroak aldiz, mendien bertzaldean, erresistentzia antolatzen du.

Lurralde ttipi huntan, Henry II. Labritekoak antolatzen du erresuma berri bat, Nafarroko Estatuak (gorte nagusiak) bilduz Donapaleun, 1523n. Sei ibarrez osatua den " *Baxa Nauarre* " erresumaren garaia da hasten. Hemendik goiti, Amikuzek leku garrantzitsua du erresuman. Estatu Nagusietarat igortzen ditu 2 jaun, 26 etxe-noble ordezkari, 4 hiri-ordezkari (Garruze eta Donapaleu) eta 3 etxe-jaun ordezkari. Biarnotik hurbil, Donapaleu, erregeen egoitza administratiboa bilakatzen da. Zigiluzaindegia (justizia ganbara), Konduen ganbara, Kontseilu erreala (Biarnes aholkulariez osatua) eta monera tailerra hirian kokatzen dira. Hiriburu ofiziala den Donibane Garazirekin hasten da nagusitasun lehiaketa luze bat...

1555ean, Henry II.ren alaba, Labriteko Joana da erregina. Protestantismoari konbertitu eta, Erreforma inposatzen du Baxenabarren. Gerla zibilaren zurrunbiloa berpizten da. 1568an, Lukuzeko Xarles erreginaren kontra oldartzen da, liga katoliko baten buruzagitza hartuz. Erlisio katolikoa debekatua da Donapaleun 1571 arte, tenplo protestante bat idekirik egoiten delarik. 1599ean, Henri III. Joanaren semea, 1589an Frantziako errege bilakatu dena bi koronak bateratuz ("Henri IV roi de France et de Navarre" titulua hartuz), erlisio gerleri uko egiten die, katolizismoa berriz ere onartuz Baxenabarre osoan.


## **ARO MODERNOA : XVII-XVIII. MENDEAK.**

Nafarroko Henri hirugarrena Frantziako erregea bilakatzen delarik Henri laugarrena izenarekin, Baxe-Nafarroko estadoek, Amikuze barne, nahi dute beren izaera segurtatu. XVI. mendearen bukaeran hasi ziren lanak Baxe-Nafarroko "legeak" idatziz emaitako. Frantziako erregeak bere nagusitasuna erakutsi nahian, lehen proposamen bat ez du onartzen eta gero erabakitzen du hautatzea pertsona talde berezi bat foru modernoak idazteko, azken hau 1611. urtean argitaratua da. Arau horrek amikuztarren bizi osoa antolatzen du maila desberdinetan : 450 artikulua baino gehiagok erresuma kudeatzen dute, heien artean, justizia, bizi ekonomikoa eta jendeen ontasunak bezalako gaiak xeheki aipatuak dira foru modernoan. Ofizialki, Baxe Nafarroa erresuma bat da, egitura administratiboa eta judizial batek probintzia antolatzen du. Amikuzeko jaun anitzek paper inportante bat atxikitzen dute Nafarroko estadoetan, hala nola Lukuzeko, Arberatzeko edo Uharteko jaunek. Justizi mailan, amikuztarrek Nafarroko " *sénéchaussée* " egituraz dependitzen dute ; Jacques Oiherart izan da lehen senexala, Arnaud Oiherarten (Notitia utriusque Vasconiae liburuaren idazlea) anaia. Henri laugarrena erahila delarik, Luis XIIIa bilakatzen da Frantziako errege. 1620. urtean, Pauerat etortzen da eta

erabakitzen du batasun ediktua izenpetzea ; Baxe Nafarroak bere independentzia galtzen du, horren sinbolo gisa, aipatzen ahal da 1672. urtean bere moneda propioa ez duela gehiago egiten Donapaleun. Euskal Herriko beste hainbat tokietan bezala, liskarrak agertzen dira jaunttoen artean eta baita ere biztanleen artean. 1730. urtean, eztabaida gogor bat pizten da Nafarroko estadoetan Amikuzeko delegatuari buruz. Antoine Dithurbisquy notario amenduztarra izendatua izan da Amikuze ordezkatzeko estadoetan. Etxe baten jabea da Amenduzen bainan bizi da beste etxe batean, azken hau Beltzunzeko jaunaren ontasun bat. Jauntto batzuen arabera, ez da jabea beraz ez da delegatua izaiten ahal. Azken finean, Dithurbisquy-k irabazten du eta segitzen ahal du Amikuzeko delegatu izaiten. Gertakari horrek ongi erakusten du aro modernoan izaiten ahal ziren liskarrak etxeen eta lurren inguruan. Emeki emeki, noblezia eta burges berriak entseatzen dira beren boterea zabaltzera. Tentsioak bizitzen dira ere Amikuzeko bi hiri nagusien artean, Garruze eta Donapaleu. Erabakia da 1765ean merkatu bat muntatzea Donapaleun, laborantxarekin lotua den Garruzekoarenarekin osagarria izaiteko. Frantziako erresumaren mailan, 1654. urtean podererat etorri den Luis XIVak bere indarra erakusten du absolutismoa hedatuz, egin ahala podere eskuratu nahi ditu. Horren ondorioz, gerla ainitz engaiatzen ditu bere erresumaren indarra segurtatzeko eta erakusteko. XVII. eta XVIII. mendeetan, Amikuzeko jendeek pairatzen dituzte garai hartako nekeziak. Gerlek, eritasunek eta laborantxako nekeek populazioa ahultzen dute eta herri batzuetan heriotze ainitz gertatzen dira. Adibidez, 1756. urtean, harriak desmasia handiak egiten ditu Amikuze osoan ogi bihia eta arto landak andeatuz. Berantago, 1774-1775 urteetan, izurrite handiek kabalak suntsitzen ditu Ipar Euskal Herri osoan ; Nafarroko estadoak pleinitzen dira segitzen diren urteetan hitzemanak izan ziren dirulaguntzak ez baitira etortzen, 400.000 liberako mailegu bat egina da arazoak konpontzeko. Urte haietan ere, laborantxako lanak eskuz egiten dituzte ez baita kabalarik tresnak kurriarazteko. Emeki emeki, jendeek beren kexua erakusten dute ; Baxe Nafarroak ez baditu ezagutzen beste probintzietan gertatzen diren " emozioak ", tentsioak senditzen dira Frantziako erregearen ordezkarien eta Nafarroko estadoen artean.


## NAFARROKO ERREINUAREN BUKAERA

XVIII. mendean, Frantziako erresumak krisi larri bat bizitzen du. 1780. hamarkada zaila da jendeentzat. 1787-1788 urteetan, desmasiak handiak dira berriz laborantxa mailan ; euri erauntsi handiak gertatzen dira eta uholde batzuek pentzeak eta bazterrak andeatzen dituzte. Horrez gain, neguak izigarri hotzak dira ; artxibean arabera, Amikuzen artoa funditzen da eta beste errekolta ez dira aski haundiak jendeen janaria segurtatzeko. Erreinuaren mailan, zergak gero eta handiagoak dira estadoaren finantza ziloa betetzeko. Heren estadoak (Tiers-Etat) ez ditu gehiago suportatzen beste bi estadoen pribilegioak. Baxe Nafarroan eta Amikuzen, liskarrak



### DERDOI SALAKO BURUAK

***Paretan ikus daitezke lau buru hauek, Donapaleuko auzitegi karrikan. Noren itxurak diren jakiteko lanak ditugu, iturri desberdinen arabera hipotesia desberdinak atzemaiten baitira. Diotenaz Nafarroako errege-erreginen buruak dira agertzen bi aldeetarik. Erdiko bientzat aldiz, debu itxura duenarentzat ala andere bular jenerosarentzat, duda gehiago bada...***



### **NAFARROAKO ERREDOLA**

**1620an bere independentzia  
galtzen du Baxe-Nafarroak.  
Iraultzarekin ditu galduko bere  
undar lege bereziak (foruak).**

pizten dira tokiko jaunttoen eta jende xumeen eta baita ere garatzen ari den burgesiaren artean. Tentsio handiak gertatzen dira 1786-1787 urteen bilkuretan Nafarroko estadoetan. Luis XVIgarrenak erabakitzen du Estado Orokorrak deitzea, hiru estadoak (Klergoa, Noblezia, Heren Estadoa) bilduko dira 1789ko maiatzaren hastapenean erresumaren arazoak aipatzeko eta aterabide batzu lortzeko. Hilabete batzu aintzinago, erregeak erabaki zuen hitza ematea Frantziako erresumaren biztanleriari ; Baxe Nafarroko kexu kaierrean agertzen dira garai modernoko arazoak eta aldarrikapenak. Luis XVIak igortzen duen konbokazioneak aipatzen du " Nafarroko probintzia ". Afruntu bat bezala ikusia da eta Donibane Garazin gertatzen den bilkura baten ondotik (1789ko martxoa-apirila) estadoek erantzuten dute erregearen deia " irregularra, ilegala eta konstituzioaren kontra joaten dela ". Aipatzekoa da Donibane Garazi hautatua izan zela bilkura-leku bezala bere lasaitasunaren gatik, Donapaulen izan baitziren istiluak 1788. urtean. Hastapen batean, Nafarroko estadoek erantzuten dute erregeari Baxe Nafarroa estado independente bat dela beraz ordezkari ez dela igorria izanen Versailles hiri nagusirat. Erregea behartua da deitzeko modua kanbiatzera, bilkura berri baten ondotik 1789ko ekainean, Nafarroko estadoek argitaratzen dute " Tableau de la Constitution du royaume de Navarre et ses rapports avec la France, imprimé par ordre des Etats-généraux de Navarre ". Delegazione bat igorria da Versaillerat, Baxe Nafarroan agertzen den pertsona erreferentea Alexandre de Poverel da, sortzez Brive hirikoa eta abokatu gisa deitua dena Euskal Herrira. Idekitzen dira Estado Orokorrak maiatzaren 5ean, segidan, agertzen da erregea eta bere ingurukoak ez direla erreforma batzuen alde. Baxe Nafarroan piztu zen eztabaida gertatzen da ere Versailles hirian, nola behar dute bozkatu Estado Orokorrek ? Edo estado bakotzak bozka bat badu edo deputatu bakotzak bere izenean bozkatzeko du. Heren estadoko deputatuek gehiengoa dute, beraz erregeak hautatzen du botz bakarra ematea estadoka. Horren ondotik etortzen dira lau egun inportanteak : " Paume " jokoaren zin egitea nun Heren Estadoaren deputatuek erabakitzen duten konstituzio bat plantan ezartzea Frantziako erresuman, uztailaren 14a Bastille gotorlekuaren hartzea, agorrilaren 4a, pribilegioen ezeztatzea eta azkenik agorrilaren 26an, testo garrantzitsu baten argitaratzea : Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Aitortza. Horren ondotik " Erregimen zaharra " erortzen da, Baxe-Nafarroako forua barne. Tokiko estadoak biltzen dira berriz irailan, azken bilkura izanen da; irailaren 23an, Frantziako erregearen manu batek estadoak gelditzen ditu.

## **FRANTSES IRAULTZAREN ETAPA HANDIAK**

1789ko udaren ondotik, Frantziako erresuma bilakatu da monarki konstituzional bat, Luis XVIak ez du gehiago podere absoluturik. Lehenagoko aztarnak erroto ezabatzeke, egitura berriak sortzen dira, horien artean departamenduak 1790eko

urtarrilan. Euskaldunak integratuak dira "Basses-Pyrénées"ko departamenduan Biarnoarekin. Erantzunak segidan etortzen dira Euskal Herritik ; otsailaren 6an, Iparraldeko ordezkari andana bat biltzen da Donapaleun ihardokitze ofiziala igortzeko Pariseko podereari. Euskaldunek ez dute erantzunik ukanen, otsailaren 26an, dekretu batek plantatzen du departamendu berria. Amikuzeko eskualdeak bi kantonamendu ukaiten ditu : Garruzekoa eta Donapaleukoa. Bi kantonamenduak bilduak dira beste zazpirekin Donapaleuko distriktan. Donapaleuko hiria lehia gogor batean sartzen da Donibane Garazirekin distrikta horren hirinagusia izateko. Lortzen du argudiatuz Nafarroko erreinuaren " hiri nagusia " zela.

Iraultzaileek beste aztarna bat nahi dute ezabatu edo kudeatu, Eliza katolikoaren indarra eta eragina. 1790. urtean (uztailan) bozkatua da klergoaren konstituzio zibila : apezak "funtzionario" bilakatzen dira eta hautatuak dira bozka batzuen bidez herrietan ; behar dute ere konstituzio horren gainean zinegin. Euskal Herrian, apez gehienak lege berri horren kontra dira, ez dute zin egiten eta ondotik deportatuak dira edo behartuak dira herritik joatera. Amikuzen, apez andana bat kasu hortan da, Arrutakoa, Oragarrekoka, Martxutakoa, Amorotzekoa, Garruzekoa, Lukuzekoa, Arberatzekoa,... Aldi berean, Elizaren ontasunak hartuak dira eta salduak, aberasten ari zen burgesiak podere ekonomiko handiago bat lortzen du ontasun hauek erosiz. 1792ko irailan, erregetza ezeztatua da eta Lehen Errepublika iragarria. Donapaleun iraultzaile talde indartsu bat atzematen da, herria izenez kanbiatzen da "Mont-Bidouze" bilakatuz. Frantses iraultzaren aintzinean, Europako erregeak oldartzen dira, gerla garai luze bat hasten da. Errepublika berriaren armadak behar ditu gizonak eta hornigaiak. Amikuzen, Euskal herriko beste tokietan bezala, boluntarioak nekez atzematen dituzte, adibidez, Labetzen, ez da nehor presentatzen alta euskaraz eginak izan dira deiak gazteak engaiatzeko. Aldi berean, Amorotzen bazkak hartuak dira armadaren zaldientzat. Napoleon Bonaparte podererat arribatzen delarik ez dira aferak aldatzen, gerlak luzatzen dira eta 1814ko otsailan gudukak Amikuzen pasatzen dira, 15ean Harispe Baigorriar generala Garruzen da. Wellington ingeles generala eta Soult frantses marexalaren arteko kanpaina hasten da Araban Gasteizko guduka handian eta bukatzen da Ortesen Biarnoan. Napoleon lehena haizatua delarik Frantzian monarkia berezarria da.

*Ce texte est visible devant le château de Camou.*

Le cimetière comprend quelques stèles discordiales et l'on a conservé longtemps le souvenir du curé Armand Goyeneche qui fut exilé pour avoir refusé de prêter serment à la Constitution civile du clergé. La

## DES PRÊTRES PATRIOTES AUX « ENNEMIS DE LA RÉPUBLIQUE ».

Le 26 décembre 1790, le roi de France Louis XVI approuve la constitution civile du clergé votée par l'Assemblée nationale en juillet. Cette loi établit un diocèse par département et fait des prêtres des « fonctionnaires » élus par les citoyens. De plus, les prêtres sont tenus de jurer fidélité « à la nation, à la loi et au roi ». Si la fidélité au roi ne posait pas un problème, prêter serment à un pouvoir dont le but était de diminuer ou supprimer l'influence de l'Eglise catholique et de son chef, le pape, en posait plus. Localement, les archives nous dévoilent que des débats ont lieu. Très vite, l'Eglise se divise entre « jureurs » et « réfractaires ».

En Amikuze, comme dans l'ensemble du Pays Basque, les réfractaires sont très majoritaires. Les archives permettent de localiser des prêtres assermentés (qui respectent la constitution civile) à Beguios, Beyrie, Masparraute ou Saint Palais ; dans le chef-lieu du district, une fête est même organisée en l'honneur de l'évêque constitutionnel Sanadon. Cependant, après les massacres de religieux qui ont lieu au moment de la proclamation de la première république en 1792, les prêtres rentrent en clandestinité, se réfugient au Pays Basque Sud ou sont déportés, c'est le cas de prêtres des paroisses suivantes : Arraute, Oregue, Masparraute, Amorots, Arberats, Labets, Ilhare, Luxe, Garris. Ceux qui ne meurent pas en exil reviennent souvent dans leurs paroisses après le concordat (paix religieuse) de 1801 signé entre Napoléon Bonaparte et le pape Pie VII.

## **ARO GARAIKIDEA : XIX. MENDEA, MUNDUKO LEHEN GERLA ARTE.**

XIX. mendearen hastapenetan, klase politiko eta ekonomiko batek gider guziak eskutan ditu; Amikuzen, adibidez, Arnaud Vivier badugu. 1785. urtean prokuradorea da Donapaleun eta iraultzaren denboran Nafarroko estadoen ordezkaria Parisen. Ondotik, notarioa Arrutan eta Donapaleuko kantonamenduan bake jujea. Errestaurazioaren denboran (1815-1830), aberatsa izan behar da bozkatzeko; Mauleko arrondizamenduan, 27 bozemaile dira bakarrik, horien artean, 8 Donapaleukoak eta Uharteko markesa. Burgesi horren eragina ikusten da 1830. urtean afera berezi batekin. Donapaleun erabakia da kolegio bat egitea baina laborantzaz bizi diren inguruko herriek proiektuaren kontra joaten dira erranez ez dutela "laborarien izerdiarekin" pagatu nahi Donapaleuko burges gazteen irakaskuntza. Egia da laborariak nekez bizitzen direla garai hortan. Donapaleuko kantonamenduak 16000 biztanle kondatzen ditu 1830. urtean eta artxiben arabera laborantzak nekeziak ezagutzen ditu. Neguan partikulazki, etxetiarrek beste aktibitateak (saskiak moldatzea adibidez) atzeman behar dituzte beren bizi xumea segurtatzeko. Batzuen arabera, lur kolektiboak behar litazke partikatu jendeen artean baina Amikuzeko gizarteak atxiki nahi ditu arau zaharrak. 1837ko uztailan, lege batek segurtatzen du jendartearen nahia batzorde sindikalak onartzu.



### **EUSKALKIEN MAPA**

**Louis Lucien BONAPARTE,**  
**enperadorearen ilobak, 1863an,**  
**Euskal Herri osoko euskalkien**  
**lehen sailkapen zientifikoa jali**  
**zuen eta ondoko mapa huntan**  
**irudikatu.**

Nekezien aintzinean, Euskal Herriko probintzi guzietan bezala, Amikuzeko eskualdeak ezagutzen du emigrazio handi bat. 1830. hamarkadan bakarrik, kasik 800 jende joaten dira Montebideoratu. Bigarren Errepublikak iragarria delarik 1848. urtean, sufragio unibertsala plantatua da (gizonentzat bakarrik); Donapaleun indar kontserbadoreak dira nagusi : Napoleonek (hirugarrena bilakatuko dena 1852. urtean) 1982 boz lortzen ditu, ezkerreko bi hautagaiek aldiz 500 bakarrik. Estatistiken arabera, jendeak frantses analfabetoak dira euskaldunak baitira; ber denboran, Napoleon Bonaparten ilobak euskarari buruzko ikerketa handiak egiten ditu euskalkien lehen mapa eginez, horretarako, ibili da ere Amikuze gaindi. Bigarren inperioaren denboran, ekonomiak nekeziak ezagutzen ditu beti laborantxaren krisi larri batekin partikulazki, emigrazioa emendatzen da. Politikoki alta, erregimena ez da lanjerrean. 1870. urtean antolatua den azken "erreferendumean" (plebiscite), Napoleonen sustenguz agertzen dira 3195 boz eta 32 kontra ! Prusiaren kontrako gerlaren porrotaren ondotik, Hirugarren Errepublika emeki emeki antolatzen da; Euskal Herrian, Eliza katolikoak eta burgesi kontserbadoreak erresistentzi gune batzua antolatzen ditu. Estadoak Elizaren kontrako neurriak hartzen ditu, aipatzekoa da 1880. urtean Donapaleun diren frantsiskanoak kanporatuak direla. Gertakari hortan parte hartu dute zazpi jendarma brigadek jakinez jendeek (auzapeza barne) erlijio gizonak sustengatzen zituztela. Aldi berean, herriak modernizazio prosesu bat hasten du ; elektrizitatea etortzen da mendearen bukaeran. Laborariek nekeziak dituzte beti, hala nola 1896. urtean, Oragarreko jendeak baimena galdegiten du suprefetari otsoen kontrako ihizi bat antolatzeko. Bukatzeko XX. mendearekin, bi gertakari aipatu behar dira. 1905. urtean izan diren pataskak herri ainitzetan Eliza eta Estadoaren arteko bereizkuntza erabakitzen delarik eta nola ez aipa munduko lehen gerla (1914-1918). Amikuzerentzat, Euskal Herriarentzat eta oro har Europa osoarentzat garai zinez iluna izan baita. Intsumisio kopuru handi bat ezagutu baldin badu ere, Amikuzeko gizonak pairatu dituzte gerlaren desmasiak hil eta kolpatu ainitzekin. Gerla horren ondotik, Euskal Herriak ezagutu ditu bilakaera handiak maila guzietan, bainan hori beste ixtorio bat da ! ■

**Antton KURUTXARRI eta Peio ETXEBERRI (Historialariak)**



*Maison d'arrêt de St-Palais. Elle sera démolie dans les années 1960, pour laisser place au marché couvert.*

## LA PRISON DE SAINT-PALAIS AU XIX<sup>e</sup> SIÈCLE.

Même si Mauléon était chef-lieu d'arrondissement, c'est Saint Palais qui est choisi au début du XIX<sup>e</sup> siècle pour abriter la prison d'arrondissement et les tribunaux correctionnels et civils de première instance. Des liens très forts se développent entre la ville et les fonctionnaires des institutions judiciaires. En 1874, la moitié des conseillers municipaux de la ville ont une profession en lien avec le tribunal ; cela explique en partie le zèle avec lequel le conseil municipal pourchasse tout au long du siècle « les légions de bohémiens et de vagabonds étrangers » (archive municipale de 1860). Le souci de la bourgeoisie est aussi de réprimer toutes les déviances, les horaires de fermeture des tavernes sont par exemple très réglementés. En 1863, un arrêté municipal interdit la baignade sans « caleçon ». Les archives judiciaires comprennent une multitude d'exemples de procès, tel le cas de ces quatre jeunes de Masparraute qui sont jugés en juin 1893 pour avoir battu un homme qui avait selon eux volé une pièce de monnaie sur la table d'un bar. La ville est le théâtre de scènes racontées en détails dans le Journal de Saint-Palais qui est créé à l'origine pour rendre compte des informations judiciaires. Les affaires concernent toutes sortes de domaines ; en 1905, c'est le curé de Gabat qui a des ennuis avec la justice pour avoir, lors d'un sermon, traité le gouvernement de voleur. Ceux qui finissent en prison vivent dans des conditions difficiles et subissent des châtiments corporels très durs. Vers 1870, l'âge des prisonniers va de 9 à 90 ans ! Finalement, la réforme judiciaire qui a lieu en 1926 conduit à la fermeture de la prison.



# LITERATURAZ...

## TESTU HAUTATUAK

|                               |    |
|-------------------------------|----|
| Pobrearen kanta .....         | 44 |
| Satorra .....                 | 45 |
| Errepikak .....               | 46 |
| Amodio galdua .....           | 46 |
| Erle kantua .....             | 47 |
| Ogi koska .....               | 48 |
| Mutil berria .....            | 50 |
| Ez dugu ziloa ikusiko .....   | 52 |
| Aire hau zuretako .....       | 53 |
| Oragarre udan .....           | 54 |
| Bizi nizano munduan .....     | 54 |
| Biduza Biduza .....           | 56 |
| Arrakatako azken hartza ..... | 57 |

## AMIKUZEKO IDAZLEAK ETA KANTARIAK

***Lehen xixtan ez bazauku iduri ere, euskal  
letren munduan amikuztar anitz agertzen  
da, konduan hartzen baditugu hemen  
berean sortuak edo horrat bizitzera jinak.***

**Allande OIHENART** (1592-1667). Hamazazpigarren mendekoa dugu eta ez da nor nahi : 1592an sortua Maulen, lege-gizon, nabarrista eta jakintsu libre bezala definitzen du Manex Goihenetxe historialariak. Donapaleuko auzitegi karrikako Joana Derdoi anderearekin




**Oihenarten poemak,  
Berzaitzek kantatuak  
Elkar argitaletxean**

ezkontzen da eta noble titulua horrela eskuratzen. Obra idatzi inportanta badu latinez egina Euskal Herri osoko lehen historia entsegua osatuz. Euskarazko bere obra izan da, batetik erran zahar bilduma gotor bat eta bestetik gazte denborako poemategi bat. Hizkuntza berezia osatu du zuberera, baxenabarrera eta beste euskalkietako ezaugarriak nahasiz, bere asmoa baitzen kultur hizkera jaso baten sortzea, beste kulturetan gertatzen zen bezala garai haietan. Hona hemen jastaren doia, Joanari eskaini poema batetik :

*Batez nago harturik  
Hura gogoan sarturik  
Ezin hil, ezin biziz, net eiharturik*

*Burutik oin zolala  
Ber'egin den bezala  
Dohainetan neduke, haren zerbitz'ahala*

**JAUREGIBERRI Donapaleukoa.** Ezagutzero emaiten zaigun ondoko idazlea, 19. mendekoa da. Iduriz Donapaleuko erretor egona da eta ez da argi ikusten horgo berekoa den ala Izpuran sortua den izen bereko bat ote den. Bere bertsu andanak agertu dira « Journal de Saint Palais »-n 1896an, eta 1867ko urtekoak direla errana da. Ondoko orrialdeetan, berak ondu "Pobrearen kantua" aurkituko duzue.



**Horra Jean Etxeparek saltzen  
zituen bertsu-paperek  
ze itxura zuten.**

**Arnaud ABADIA** (1843 Mithiriña – 1916 Belokeko komentua).

Kepa ALTONAGA biologoaren lanari esker Mithirindar seme hunen lana argitara ekarria izan da azken urte hauetan : Mithiriña Garateko semea apeztu eta Larresoroko seminarioko zuzendari izana da urteetan. Manex Hiriart-Urruty eta Blas Ademarekin Eskualduna astekariaren buru eta luma jorienetarik izana da. Besteak beste laborantzari buruzko hainbat artikulu atera zituen, eta horietarik baten pasaia bat irakurgai duzue urrunxeago.

**Jean ETXEPARE.** Harrigarria bada ere, Donapaleuk ere izan du berea. Aldudeko medikua eta Jatsuko gaztearen homonimo hau bertsu-paper saltzailea izana da, Patri URKIZU ikerlariak argitu ahal izan duenaz. Gizon honek sinatu 13 bertso-paper andana atzeman ditu, 1873 eta 1890 urteak artean argitaratuak. Itxura guzien arabera, feriaz-feria kantatu eta saltzen zituen. Denak dira krima lazgarri eta katastrofa ikusgarrien kondairak.

Jean edo Manex Etxepare honen obraz gehiago jakin nahi duenak, Manex liburutegira joatea aski du, eta han Patri Urkizu ikerlariak moldatu liburu-bilduma aurkituko du.

Hona, jasta gisa, hiru bertsu lazgarri, krima ezin lazgarriagoaz ari zaizkigunak :

## AGER-MIZPIRATEGIREN KRIMA

*Gizon gazte kriminel bat heskualduna  
Atharratzeko onduan egon dena.  
Aguer-Mizpirateguy baitu hak izena,  
Kantuz esplikatu nahi dut haren krima.  
(...)*

*Emaztegai gaixua zuen inganatu,  
Lekhu ilhun batetarat ereman du,  
Sei ukhaldiko pixtoletaz porroskatu,  
Arroila baten barnian gero ezarri du.  
(...)*

*Galeretan eman dute sekulako,  
Bere krima lazgarriaz orhoitzeko,  
Exenplu handia hori da gaztendako,  
Kriminelak nola dituzten tratatuko.*

**Martin MINVIELLE** (1896 – 1948). Labetzeko semea dugu. Parisen ikasi zuen medikuntza eta han lan egin. Amikuzerat itzultzen denean, bere herritarren hezkuntzaz eta osagarriaz arranguratzen da. Gau eskolak emaiten ditu mutiko gazteeri eta nexkatoendako D'Arthez ikastegia irekitzen. Hitzaldiak emaiten ditu ere herriz-herri, orduko gaitzeri buru egin nahian. Bi gaiari buruz ariko da bereziki : hordikeria edo alkoholismotik gizonak zaindu nahiz eta haur ttipien artatzeko manierak ama gazteeri erakusteko.

Bestalde Gure Herria astekarian « Osagarriaz » saila eraman zuen beste mediku lagun batzuekin batera.

Lehenetarik da medikuntza dibulgazioa euskaraz idazteko. « Haur ttipien altxatzeaz » jalgi zuen liburuxkako sar-hitzaren zati bat duzue hemen :

« Euskal Herrirat itzuli naizenean, hain nintzen alegera nun kasik uste bainuen ez nuela hemen gauza onik baizen aurkituko. Eta hargatik laster bati ohartu niz, ez baitut batere gustukoa : eta hura da, haurrak ez dituzuela behar litazkenak. Uste nuen hemen ikus, kanpañetan bizi diren guziak bezalako haur gotor, azkar, gorri eder batzu eta sobera ardura aurkitzen ditut direla txar, mehatx eta kolore zuri, begitartea eta gorputza min itsusi batzuez beteak. (...) »

**GAURKO IDAZLEAK.** Joan den mendeko bigarren partera heltzean, euskal kontzientziaren berpiztearekin idazle multzo eder bat agertzen da hemen gaindi.

Batzu besteen poema, kantu edo antzerkiak kurrituak dira Euskal Herri guziko plaza xokoetan. Nobela edo ipuin egileak ere dira gehienak, artean idazle ezagunaren figura dutenak badirelarik. Ororen buru, ez da urterik, egile horietarik baten edo besteren obra berri bat agertzen ikusten ez duenik.

Beren obra ezagutzen ez baduzue, ordu da hurbil zaitezten liburutegi edo taulagainetarat, gaurko gure asmo, amets, maitasun edo kexu bultzez moldatzen dituzten agerpenez gozatzeko.

Baditeke zerrenda huntan, bat edo beste ahanztea, eta barka dezagutela otoi. Dena den, hemen duzue gure gomita beroa zerrenda huntako "gure" idazle eta sortzaileen obraren ezagutzera joateko: Manex ERDOZAINITZI ETXART, Eñaut ETXAMENDI, Alexandre BORDAGARAI, Mixel THIKOIBE, Koldo AMEZTOI, Itxaro BORDA, Antton LUKU, Jojo BORDAGARAI, Mattin IRIGOIEN eta Béatrice URRUSPIL.

Gehiago barnatu nahi izanez geroz, Donapaleuko mediatekan den Manex liburutegian aurkituko dituzue egile horien guzien obrak.

Anartean, jasta gisa, ondoko orrialdeetan atzemanen dituzue zombait testo. Irakurketa on.



# POBREAREN KANTUA

Orori othoitze eginez,  
Pobre naizela erranez,  
Nabila deus dukedanez.  
Ene beharrak estal nirozke  
Ainhitzen soberakinez,  
Aminak frango eginez  
Bizi naiz hats gorapenez,  
Hobeki ezin izanez.

Eginik philtzar zikhinez.  
Zaku bat hutsik, bi soinez,  
Dakharket ezin jasainez.  
Etzantza gogor, erdi biluzi,  
Urtheko sasoin latzenez,  
Ezin deus jan ez ukhanez,  
Bizi naiz hats gorapenez,  
Hobeki ezin izanez.

Mintzatzen naiz fede onez,  
Frogantzak ongi eginez.  
Tristerik dauden zordunez.  
Bazterrak oro kurritzen ditut,  
Bati khen, bertzer emanez,  
Orori agur eginez,  
Bizi naiz hats gorapenez,  
Hobeki ezin izanez.

Zer du balio erranez  
Ene dolore gordinez,  
Hatz herstura bihotz minez !  
Gaitzak nau jaten, ez dut phausurik.  
Jarrik ez eta etzanez,  
Edari khiratz edanez,  
Bizi naiz hats gorapenez,  
Hobeki ezin izanez.

Ez niro erran jakinez,  
Etsitu behar dudanez,  
Huntarik hilen naizenez,  
Oro phizatzuz, nork diro juja,  
Oraiko itxurapenez,  
Beharrik badukedanez,  
Bizi naiz hats gorapenez,  
Hobeki ezin izanez.

## JAUREGIBERRI

### Donapaleukoa

*Bertso andana hau, Jojo  
eta Ramuntxok musikaturik  
aurkitzen ahal duzue « Zure  
kanpoetara » diskoan.*

# SATORRA (1892)

(Eskualduna kasetako Laborarier sailatik)

## Aldekoa ote dugu satorra ala etsaia?

Etsaia, etsaia, batere izaitekotz, dautazue guziek erranen berehala. Satorrak ez du gaizkirik baizik egiten; eta beti ari da bere lan tzarrari. Ez dauzkuia satorrak landak, pentzeak eta baratzeak berak iraulirik ezartzen, atzeman landare guzien erroak jaten dituela? Laborariaren etsai gaixtoenetarik bat da satorra.

Baditeke. Halere ez dezakegun eman gainera merezi duen baino gehiago estakuru; goazin gauzak ongi behatuz. Satorra lurpean bizi da gu bezalakoa ezin ditek sar haren xiloan jakiteko xuxen zer ari den, eta satorra bera ez da bere berrien salatzaile.

Bainan badira gu baino asmu hobeko gizonak, satorraren ara eta egitate guziak nolakoak diren atzeman dituztenak. Huna nola:

Jaun jakintsun aipatu bati ekarri zaizkoten bi sator bizirik. Aspaldian ihizi beltz horietarik zonbeit eskuratu nahia zagon, bere begiz ikusteko, ala diren belar jale, ala xitxi jale. Ezartzen ditu beraz bi satorrak barrika buru motz baten barnean eta emaiten deiezte harat bere baratzekeo belarrik hobeenetarik.

Biharamun goizean badoa jakitera zertan ote dituen bere hazkeiak. Zer ikusten du? Barrikaren zolan sator bat harat hunat dabilala lasterka, kexu eta sabela hertsirik. Bertzea nun ote da? Gure jaunak ikertzen du belarren artean eta atzemaiten zer, zuen ustez? Bigarren satorraren hexurrak ongi murtxaturik.

Sator goseak, gau batez, jan du beraz bere



laguna, eta orai berriz gosetua, zer jan bila dabila. Orduan jaunak aurdikitzen dio xori bat bizirik eta hegalak mozturik. Satorra jauzian xoriari gainera doako, hain baita gosea, eta ahoa betez, luma eta hexurrez kanpo, dena jaten du. Gero badago etzanik xoko batean. Eguerdiri buruz bertze xori bat jan zuen, eta halere arratsa gabe, berriz goseak zerabilan lasterka.

Oherakoan gure jaunak eman zion satorrari apo bat. Satorra hurbiltzen zaio berehala apoari: apoa hantzen da hapaka, ustez beldur eginen diola satorrari: bainan ez da hau puska handiari lotzeko herabe. Bizkitartean apokia ez bide zaio laket, ezen sudurraz hunkika ibilirik, uzten du hor apoa eta badabila xokoz xoko, bertze zerbeiten bila. Biharamuneko satorra hila zen eta belarrak han zauden osorik, apoa ere bai. Nola uka satorra xitxi-jale dela eta ez belar-jale? Eta zer xitxi-jalea! Egun batez jan ditu sator bat eta bi xori: bi aldiz bederen bere pizua haragi. Izari horren arabera, gizon batek idi baten erdia behar luke jan egunean. Sabelak, den bezala, ezin betez emaiten daukun lanaren gainean, ez ginduke bertze beharrik!

Eta satorrak zer haragi jaten ote du lur pean? Hori jakiteko liteke.

Jakina da hori ere. Nola? Beha hunat, satorrari sabela urratu diote, ez bakar bati, bainan bai anitz, eta xeheki ikertu zertaz zuten betea. Gauza laburzki erran dezadan, huna zer duten beti atzeman. Satorra hazten da xixariz, lurpeko eta lurrean dauden harretarik gutiz gehienez. Eta nola xixariak aipatu gabe utziz, lurpekoak eta har horiek baitira

oro erro jaleak, eta ahal dutenean hazi jaleak, hortarik ezagun da satorrak, bere estakuru guziekin, baduela ere alderdi onik. Hain da gauza hori egia nun lurpeko eta har horietarik ausarki den leku batzuetan uzten baitituzte satorrak ar ditela beren lanari. Ezen bi gaitzetarik ttipiena hautatzen ohi dugu. Badira ere satorrak bizirik atzeman eta, bertze lur batetarat eremaiten dituztenak, lur hunen xixari, har eta lurpekoetarik garbitzeko.

Bizkitartean aitortu behar da satorrak ez duela lan hori urririk egiten. Onaren aldean badu gaixtoa. Baldin satorrak ez badu belarkirik jaten, egia baizik ez da, bere lurpeko lanetan, bere bideak egitean, mozten dituela atzeman erro guziak, eta kanporat aurdikitzen duen lurraz zikintzen duela larraina. Horra zertako anitz begietan duten laborariek, eta hemen haren alde erran ditugun gauza guzien gatik, gogo onez, ahal balute, beren lurretarik kanpo eman lezaketen satorraren itxura guzia.

Badira satorraz jabetzeko bideak, bai bizirik bai hilik. Aipatuko ditugu bertze aldian. Zuzen zela iduritu zaut erran gindezan lehenik, anitz burutarik higuingarri izana gatik, baduela ere alderdi onik. Gauza horien jakinera, eginen du bakotxak nahi duena; edo ahal duena.

(...)

*(testu osoak beste hiru parte baditu honen ber heinekoak ; horietan untsa esplikatzen digu nola planta satorra errexkienik eta segurrenik atzemaiteko)*



## ARNAUD ABADIA

(1843 Mithiriña – 1916 Belokeko komentua)

Jakin dugu ondoko hilabeteetan, Kepa Altonagak animalien inguruko artikulu andana baten edizio bat argitaratuko duela Pamiela argitaletxearen eskutik. Anartean, Manex liburutegian aurki dezakezue testu hau osorik.

## ERREPIKAK

1. Ahantzi nahi ditut etsipen kantuak  
Herri zapaldu honen intziri-nigarrek:  
Taigabe daramagun burruka gogorrek  
Dakarzki berarekin hazi emankorrek...
2. Nik ez dut bizi nahi besoak mozturik  
Bi zangoak herrestan bizkarra hautsirik:  
Izar bati begira lagunak eginik  
Esperantza kantatzen ez naiz asperturik!
3. Nola oihan mendiak berdin itsasoak  
Musika xoragarritz diraden beteak  
Lurtatze berri baten indarki bultzadak  
Daldaratuko ditu zeruko izarrek!
4. Mespretxu zapalkuntza kalapita hauzi  
Herri ukatu baten morroi marka guzi  
Dator Askatasuna hodeiak doatzi  
Ager gaiten dantzara bihar edo etzi!

## AMODIO GALDUA


Uste nuen  
Norbait  
Baitezpadakoa  
Aurkitu nuela  
Behin  
Uste nuen...

Eta  
Uste gabean  
Ikusi nion  
Begi-ñiñikan  
Errauts  
Bat!

Behin!

Halako zer  
Bat!  
Ez jakin xuxen  
Zer  
Baina  
Halako zer  
Bat!  
Behin  
Begi-ñiñikan!

Eta  
Gure amodioa  
Hortan  
Galdu zen.



**MANEX ERDOZAINZI ETXART**

(1934 – 1984)

*Ibarlan sortu poetak Donapaleuko  
Frantxixkanoen etxea izan du finkagune.  
Goizegi joana, obra minbera eta sarkorra  
utzi dauku, esperantzaz eta hunkiduraz  
oratua, jendeari eta naturari bere amodioa  
emanik, osoki.*

*« Hinki hanka » (Elkar) eta  
« Bizitza pilpirak » (Maiatz)  
poema liburuatarik hartu  
ditugu ondoko bi poema hauek.  
Bere obra osoa interneten aurki daiteke,  
« Gauaren atzekaldean » (Elkar)  
nobela barne.*



### **ALEXANDRE BORDAGARAI**

(1935 Pagola – 2010 Gabadi)

*Gabadiko arotza, ze gizon  
alegera zen oroitzen gira denak.*

*Kantari paregabea, botz azkar  
eta sarkorrarekin. Pil-pil taldeko  
diskoan entzuten ahal dugu oraino.*

*Kantu ontzen ere entseatua zen,  
aire eta hitzekin. Hemen dugun  
andana, bere eguneroko lagunak  
zituen erleeri eskainia da.*

## **ERLE KANTUA**

Egun batez sortu zen munduan erlia  
Hegazkin ttipi hori iduri ulia  
Janari berezia da haren fruitia  
Segitu nahiz dagona "badeno lilia" , tra la la

Primaderan egin du erreginak kantu  
Bere amodioa deklaratu baitu  
Alaba ttipienak abertitu gaitu  
Munduaren ongia "dutela hautatu" , tra la la

Maiatz eguerdi batez umea da elki  
Adar bati loturik han dago ederki  
Egoitza berri baten aiduru umilki  
Gizonak beharko dako "eskaini eztiki" tra la la

Geroztik joan eta jin ari da erlia  
Azken eguneraino segituz aidia  
Gizonari erranez ez fundi lilia !  
Nahi baduk gozatu "nik egin eztia" tra la la

Umiltasunak bere neurriak baditu  
Erlea orratz finez baizauku beztitu  
Harekilan ohoinak urrunazten ditu  
Beldurrik gabeari "sudurra handitu" tra la la  
"burua handitu" tra la la

Erlearen oihua salatuz Jauneri  
Jakitate ta diru nagusi iduri  
Kanta dezagun behin bederen elgarri  
Ez dezagula bota ez "harria guhauri" tra la la

— Etzuxun ez beti josteta gure denboran-ee !

— na, etzinduten ez uai bezenbat jateko erdi-pozoindatu jaten ordu hetan ! Jateko uai bano naturalaguak eailtzen zitxun ba araz ? Denak etxian jinaaziak...

— Bahaa ba. Etxekuak... etxian inak ba. Haatik gasnaik finenak, edo axuri gurduenak, ala atzar gizenenak merkaturat, bisoseko zonbaiten truk...

— Etxeko bereko-ree ba zoinbeit !

— Ba baa, gasn'ustel ta sagiek hunkiak, ta, heguak hantu edo arraildu zoinbeit, taa... axurkia ? Bon, Bazkoko, bat plantakua, gañan beste gisan : axuri xunkurra (lepo makurra) bazelaik, hua-ta-bera, etxeko besta ! Edo, hazinda "burtxerotia" atheatzen bazen bat, hua, etxian jateko, bilgorrak ez baitzien saltsa biziki "zihotzen". Eta gu, kontentxko ! Fontisian, hok oro gaur, zier ta egungo jender, hola erranik, miseaulekeria hutsak iduri izanik-ee, etzitzun batee haain gaitz ordian; Gertatzen zitxun ba haatik nekez irhesteko apairiak-ee batzutan : behar-paiteat auzoat juan eta, eguerditan ezkaatzian sartzian berian, urrin gaixtua, aurtikitzekua, etxe guzitik... "urineko"-andeatu urrina. Gosiak beharrik laauntzen baigintien aintzineat ukanain jaten !

— Hori haatik larrixkua erten dukexu ba xuk ?

— "Larrixkua" ? Gaaixua xu ! To, errain ez niina erranaaziko daaxu preseski ; xu libro ez sinesteat. Amatxi hak berak kundatia (hots, ez "amatxi" ez, semia -bakarra - zirhozaaikin hil baitzitzakon familliatu gabe).

"Gaizo Gehazina, ira-salletik, Gañeko-larretik, jin ninduan iluna gabe auhariain prestatzeat, behiain deizteat, ahatxiain bataazteat, eta kantonton ? Xaalduna, "Zuria" baakin, Mendaabia-aldeko pentzian gindaailenan urri-bazkan, berdian ; Xarmanteko esnia botatzen diaan, ni kontent : "to

ene hiru gizoner fornituko'un brauki". Ta, eniza, xutitzian ta ttottuain hartzian, hantxet treukatzen ? Behiain kontra buriaz juaiten, ez nahiz urri-bazka kariz barrukiak dien saltsarat erori... ezkeraz behi tripan bermatuz, eskuñian nunbaitan naukela kotxu esnia ixuri gabe... noiz eta, ene Zuriak zirina zirristan darion iturritik hura bezala ! eta, ziliportak ene kotxu esnerat... ziliporta larriskuak gio ! Deurriain polla ! Behi kaskante zirinduia ! Uai untsa gitun ba !

Bi makil kaska manik eta Mendaabi zokoat behia igorriik, hara auharia prestatu behar duala. Gerla-denbora baitzen ta, dakinana, gauza zoinbeit xuhur, bana nik xokoleta gaminetian gordeik ukaniki... ze'iten dinat ? "To, zurpriza gizon horier behar deen in !".

Heldu zazkiaan ba aita-seme ta mutil mahairat. "Na,ze barruki-urrina den etxe huntan nexkatua !" hasten ziaan gizona... Nik "berde-usina'uxu gizona ! urri-bazkan txu-ta behiak". Ba ba, salda ta mestur eta gasn'ustel puxka bana har eta ene xokolet-esneik nehok ezin irhets... Intzun nitienak ! Intzun nitienak ! Gehazine, eztaunat errain.

— Ago Joma, ago ! dio Gehaxinek, ehiz ez bakarra eskalapoinkeria bitxi egile : nehorri eztiakonak hau salatu oono. Behin batez, etxeko guziak, ene hiru tipienak salu, bortian nitielaik, bordaldeko belarretan, "jatekuak" (ogi eta arto-mestura) in behar atsulutoki, etxiain bete jende ukain bainien bihaamunian, eta... ogi-irina eskas ! Ta, poliki-ree falta. Artotik untsaxka, lau mestura pollitena bezala, usaiakua hots. Ogitik aldiz, usaiakotik hiruina bedeen eskas. Ha'uk ixtoria ! Ta nihaur etxian, haurak berak ezin utz, Paadoirat (auzoa) prestuz xeka juateko... ahalge-ree egi'erteko... Na, saaian ez duta atzo gisu xuri puxka'at arrultze biltzian ikusi ? (Gisu-labeak erretzen baitziren etxetan).

*Eta, hara nola gisu ta ogi-irin nahasirik "ja-tekuak" egin zituen Gehaxinek. Bixtan dena, ogi ikaragarri koskak atera zirela labetik, hainbeste gostaik gorritu labetik.*

*Nik in nitien ningarrak ! Haurraaa...*

*Nihaun buria aphua bano aphaloo kusten...  
intzunen nitienak jinen, lanak, lanak in behar :  
urde bazkatze, behi deizte ta alatze, bildotxak it-  
zaleat sar, gasnak itzuli, haurrak ! Piarreño oono  
bularrian."*

Lehen etzen jendea oraiko haro ezin-egonean bizi ! Bizitzeko behar den denbora hartzen omen zuen jendeak. Goxoki, gauzak beren hurratsean juaiten utziz. Etxekoz-etxeko bizia eginez. Auzoekin gostuan kurutzatuz : *hi bahiz – ni banuk*-eriarik gabe. Sanoki. Hitz batez, ala biez : goxoki, uros ! Gu bezala beti xifriturik ? Bai to ! ja, ja, ja !! Beren hurratsño hartan, ttuku, ttuku. Leher-egiten zutelarik ere... nehor gutti, "desarrañaraziz" ehortzketetan !

### **XIX.mendeko Luzaideko Borddel-en pasarte hauk "lekuko" (unts'edo gaizki orhoitzen baniz) :**

Mendekoste-bestetan aurten Arneiko errekan  
Ixtorio bat gertatu'izan da kasik ez baitirot erran  
Bost emaztek dituzte edan hamalau pint'arno betbetan  
Jokaturik kartetan

Jokua zuten florian Arnegi Madrilenian  
Atso gaizuek uste zuten zirela zeruko lorian  
Aingeru guzien erdian eta plazer haundian  
Beren botoilak aldian

Batak dio bertziari haurra ! Hire graziari  
Arno huntarik edan nitiron berdin bizpairu pint'erdi  
Ogi poxi zoinbatekin hain gitun-eta goxoki  
Hementxeño elgarrekin

Katixa eta Kattalin auzo biak elgarrekin  
Arno edaten ari ziren kuraie haundi batekin  
Gero bazuten bai zer egin beren farfariarekin  
Gibelego aldetik (etabar)

**Pedro E. (Borddel)**



### **EÑAUT ETXAMENDI**

(1935 – Ezterentzubi) Euskal kantagintza berritu dutenen belaunaldikoa da Mithirindarra. Bere obra osoaren bilduma agertzen ari du Maiatz argitaletxeak, dela ipuin,kantu edo nobela. Zazpi tomoren betetzekoa izanen omen da, gure herria, hizkuntza eta kulturaren berpizten zazpi eginahalak egiten dituenaren gaur artinoko idatziekin...

# MUTIL BERRIA



## MIXEL THIKOIKE

(1948 – Amenduze)

*Kantu frango ondu ditu eta Xorrotxak  
taldean edo gaur Pil-Pil taldean  
kantatzen ditu bere lagunekin.*

*Azkenaldian, ipuin bildumak argitaratzen  
ditu : Hotz-bero (2007), Gorraile azeria  
(2008), Jin bezala (2009), denak Maiatz  
argitaletxearen eskutik.*

Sekulan ez nintzen, goiz hartan bezala, hain zalu eta erne jeiki, amak deitu ninduelarik — Eñaut...— jautzian ohetik ateratu, galtzerdi motxak trabeska ezarriz — ez, ez horiek ez, egun... — beste pare bat, "igandetakoak" eman zauzkitalarik — badakik norat ari hizan egun, ez? — jaunzten nintuela ahal bezain laster, beldurrez ez nintzela aski fite preparatuko — ba, ama, merkaturat... — atorra berria burutik behera, zapeta ziratuak esteki gabea, zalapartaka ari bainintzen beztitzten, noiz ere entzun nuen beheartetik ozen aitaren botz idorra — heldu haiz, azkenean? — bai, berehala, prest nuzu — eta tarrapatan eskalerrak hirunazka jautsiz sukalderat sartu nintzen, beldurrak hartua ni gabe joan zadin — goizik jeikitzen bahiz, enekin eremanen haut — ez bainuen holako paradarik huts egingo etxea lurrerat joan balitz ere — segur, aita? — han zagon, xamarra soinean, makila eskuan, irri ezti batez askaltzerat manatzen ninduela — harazkik indarrak, behartuko zauzkik egun — esne eta ogiz betetako gopor bat iresten nuela kasik itotzeko irriskuan — ago emeki, gaizoa, ez gaituk beranduko, ez — ezpain xokoetako azken esne ttorttak beso sahetsarekin xukatuz — ale, bagoaz, orain — ezkarazetik pasatuz kanporat atera ginen, zaldiz atelatatuko karrosa beltzean sartu, biak ondoan jarri eta, ene haurtzaroko amentsik bizienaren osatzera nindoan, Donapaleuko merkaturat joatea aitarekin.

Ai zer eguna! Goizeko lauak ziren doi-doi etxetik eta plazarako bidean sartu ginelarik eta hotz-ikaran, bihotza pil-pilean, gogoa aments iratzartuetan murgildua, ohe beroaren gozoa gibel utzirik, iduritzen zautan mundu guziak jakiteko egitate bateri buruz nabilala. Hamar urteak bete berriak nintuen, ordu hetan, mila bederatzi ehun eta berogoita hiruan, gerla denbora betean, ez banakien ere sobera izaera horrek zer erran nahi zuen xuxen. Bakarrik, ondotik ohartu nintzan bezala, bidetan zehar aita zaldia geldiarazten zuela, oiherrotz bitxi batzuen gatik, gero mintzatzen erdi-frantses eran — ...au marché... — xamarraren azpitik atorrako sakelari zituen paper zombait ateratzen — oui, laisser-passer... voilà... — et, lui, qui?... — lui, mon fils... — eta aintzina goatzin, Donapaleurat heltzeko ordu bat hurbil emaiten baiginuen.

Bezperan, aita erran zautalarik merkaturat zoala — mutil berri baten bilatzeko menturan — eta hartarako laguntza zerbait behar zuela, seko erran nion, doi bat espanturekin — ni, ba, jinen nauzu laguntzeko — eta irri erdi trufa batean erantzun zuen — ba, berdin, hik edo beste batek, berdin balio dik. Orduan, bakarrik izan banintz, zerurat heltzeko punpea egingo nuken hain nintzen irus, harro eta nik dakita zer oraino, ene asebetea ezin gordez nun, zakurrari berari kondatu nion segidan — aita nitan konfidantza handia dik, uste duka — amak bere aldetik dudak ezarri bazituen ere — uste duk zuhur dela Eñauten eremaitea? — baietz, ba emaztea, enekin izanen dun — eta hortan finkatu zen, ene atsegin handian, beren deliberoa. Eta, gero, goizeko argi xirrintak agertzeari eta hiritik hurbiltzeari sukar beroenean nintzen aita hasi zaitalarik « kontseilu » emaiten — hemendik goiti ez haiz gehiago haur bat, ene laguntzale bezala nahi baduk onhartua izan, jakin behar duk, lehen-lehenik, ulertzen ez den aferetan ixiltzea dela hoberena. Hola segur izaten ahal haiz ez haizela tronpatuko eta ez nehoi kalterik egingo. Bestalde, nik tratua egin eta, afera egiten bada segurrik, hik beharko duk egon zaldiaren zai merkatuko plazan, nik azken xehetasunak finkatuko ditudalarik ostatuan, ados — bai, bai, baina nola... — xo! zer erran deat berrikitan! — a, bai, ixilik egoiteko, ados aita.

Goiz-goizean merkaturat heldu ginen eta, lehen jende saldoa lekuen hartzen ari zen, bakoitzak behi, ardi edo zerri tropa bat estekatzen zuela burdinezko kadenetan, bertze batzuk aldiz saski edo zareetan zituzten mozkinak lurrean hedatzen denek ikusteko gisan, aita aldiz zaldia uzten zuela bere karrosarekin merkatuaren erdian zegoen platana erraldoi baten azpian eta giderrak enborrari estekiz — zaudezte hor biak, itzalean izanen zirezte sarri — eta, bere karrosan zuen zaku gotor eta beltzaran bat platanako abar bateri lotuta dilingo, laster joan zen kurri, kabala hau kunki, beste huni so, jende ainhitz agurtuz, irriz batzutan, erdi kexu bezala bestetan, eta, ni, harritua, ahoa xabal-xabala, ez jakin norat ez nori so egin, erdi burxoratua hainbeste azantz eta oihu entzuten baitzen plaza guzian, han egon nintzen

tente-potente, aitaren makila eskuan, hain ohorezko lana manatu baizautan. Goiza joan zautan kasik ohartu gabeen jendez mukurru zen plaza hartan, eta ordukotz begiak klikaka hasiak nituen akidura eta lo-eskasa gatik, azkenean jarri bainintzen karrosaren albian, handik bederen goradanik ikusten nintzela merkatuko harat hunatak, emazte, gizon, kabala, erhauts eta kearen artean, aments batean bezala.

Eguerdi aspaldixkan pasatua zen, elizako erloiuak jo zuenez bainakien, aita beste bi gizonekin, eni keinu ahin bat eginik, joana zen ostaturat, noiz ere izitzeko harridura batek hartu ninduen, bat-batean, platana abarrari lotua zen aitaren zakua igitzen eta goiti joaiten ikusi nuelarik — jes, zer mirakuilu da hau — eta lasterka abiatzekotan nintzen aita abisatu beharrez norbaitek zakua ebasten ziola, orhoitu nintzalarik berak errana, ixilik egoiteko edozer gertaturik ere, eta zozo baten gisa, begiak borobil zapartaturik, lotsati eta ez hainbat adore, gure zakua arbolaren hostotzan desagertu zen, bizi-bizia, nehork ikusi gabea, salbu nik, baina sekretu baten jabe nintzan eta ez nuen nihon ez nehoi deus erraiten ahal. Eta, orduan galdezka nindagon nihuri, zer da ixtorio hau, ez jakin nun zer begira, hostotza sasitu hartan ez baitzen deus antzemaiten, zer erranen nion aitari ikusiko zuelarik bere zakuaren falta, noiz ere — bena, bena, zer da berriz hori? — begiak fretatuz ikusten nuena segurtatzeko egia zenez, suge baten antza gizon gazte bat jautsi zen platana barnetik, tiroaren hixtuan karrosan sartu eta, erhi bat ezpain muturretan emanez, ixiltzeko agindua eman apal-apala.

Hauze zen ixtorioa!

(...)

# EZ DUGU ZILOA IKUSIKO, BAINA BARNERA ERORTZERAKOAN...

So egizak aitzinera eta anda hortik, beti inguruetara begira, ametsetan egon gabe !" Hainbat aldiz entzun dugu hori, ondotik genuen akulatzailearen ahotik, bidesketan gaindi gindoazela, edo karriketan zehar. Zilo batera erortzeko hirriskuan bagina bezala, eta hori gogoan, beti aurrera begiratu behar. Ondorioz, honek gure baitan utzi digu, horrelako duda bat : bide bazterrik ez delako ustea... Ezer ikustekorik gabe... Ez jende, ez ingururik. Deus.

Urteekin, ibilera horrek markatu gaitu eta makurtu ere. Orain, burua, lepoa eta espaldak, denek gorputz ale bakar bat osaturik, oro soldaturik bezala gabiltza. Usaia txarrak eman dizkigu ere : itxaropen izpirik gabeko zakur galdu bat iduri, bakarrik eta soilik gure bidetik joaten gara, begirada baztertu barik, ez bagenu nehor gurutzatzeko paradarik bezala. Herritar batek erran lezake, gordeka ibilki denaren itxura ematen dugula, gure izaiteaz lotsa bagina bezala, besteak ikusi ez gaitzan... Edo besteak soegiten digula, ikusi ez dezagun ! Gogoa bakean izateko, aments ? Konturatu gabe, eguneroko bititza, bere aldaketa eta iraultzekin ondotik iragaiten zaigula...

Baina ohartu naiz, errebeldeak ere baditugula gure inguruan. Eta ni, haietako bat naizela uste dut. Errexki ezagutuko gaituzu : autoz, bizikletaz edo oinez, inguruak begiratzaz lasaiki goazen horietarikoak gara gu. Beharbada, topatuko dugun ziloa ez dugu azken mementoan baizik ikusiko, baina badakit barnera erortzerakoan, hori bai, irudi ederrak eta amets zoragarriak pasako zaizkigula gogotik... Hortaz segur naiz, eta pozik.

*Hori hala bada halabiz, hala ez bada halatsu !*

*(Testo hau "Journal du Pays Basque"*

*egunkariko azken zutabea agertua da, 2009-2010ean)*



## **KOLDO AMEZTOI**

(1952 – Arruta) Koldok bide luzea du jadanik egina ipuin kondatzen eta moldatzen. Halako batean, hasi zen herri edo herrialde bakotxarentzat kondaira baten asmatzen, atsotitz edo elezahar berriak asmatuz gehienetan.

Maiatz argitaletxean hiru liburu argitaratuak ditu eta bere ipuinen diskorik ere bada entzungai, zuzeneko emanaldiez bestalde.

# AIRE HAU ZURETAKO

Aire hau zuretako  
Dut idatzia  
Txorien hegala pin  
Utzia  
Kanta dezauzuten  
Mezu berezia  
Hitzek ez dioten  
Guzia

Aira dituen agüdo  
Gure planetarat  
Eskapatzen ginen  
Hartarat  
Beren sinfoniaren  
Eskaintzerat  
Zeruan argien  
Pizterat

***Maiatzeko loreak***  
***Maitia***  
***Etengabe dira sortzen***  
***Uda ari zauku***  
***Hurbiltzen***  
***Hatsa dakot***  
***Senditzen***

Tipitik maite zaitut  
Orroit zaite  
Ikastolatik  
Haste  
Geroztik pasa dira  
Hainbat urte  
Eta nik zu beti  
Maite

Amesten dut gauero  
Zuri kantatzia  
Zure saihetsean  
Jartzia  
Izarren dantzan biok  
Ausartzia  
Zu besotan ttinka  
Hartzia

Egunak dauzkidazu  
Alaitzen eta  
Betetzen ere  
Gogoeta  
Ez dadila geldi  
Behin has eta  
Sekulan sekulum  
Josteta

Aire hau zuretako  
Dut idatzia  
Txorien hegala pin  
Utzia  
Kanta dezauzuten  
Mezu berezia  
Hitzek ez dioten  
Guzia



## JOJO BORDAGARAI

1961an sortua, Gabadiarra gazterik hasten da kantuz Bernadette bere arrebarekin. Geroztik, Ramuntxo CARREREkin, edo Pil-Pil taldean, berak ondu xaramela, kantu eta botz ezkiez xoratzen gaitu.



# ORAGARRE UDAN

Jabal dabil zaina  
Nola maite dudán  
Hor dela ekaina  
Oragarre udan!

Egunen erdiko  
Oreka isila:  
Dirudi betiko  
Mina dela hila.

Ekia behari,  
Haize, hatsa edo  
Ainara kantari:  
Airea da geldo.

Mundua ibiltzen  
Doa daldar kaldan  
Ardi batzu biltzen  
Haritzaren maldan.

Non da heriotza  
Ekaina minean?  
Bake zait bihotza  
Herri saminean.

Jabal dabil zaina  
Nola maite dudán  
Hor dela ekaina  
Oragarre udan.

« Noiztenka » liburutik hartua - MAIATZ argitaletxea



## ITXARO BORDA

1959an sortua, Oragarre Oihenarteko alaba Baionan bizi da orain. Ez da gehiago aurkezten, bere obra hain da jori eta aberatsa. Eleberri, ipuin edo poema bilduma, artikulua, Maiatz aldizkariaren sortzaile, ... azken hamarkadetako euskal idazle emankorrenetarik da, bere botz propioa, hizkera aparta eta xorroxtasun handiko begirada lantzen dituena.

# BIZI NIZANO MUNDUAN

(Amaia Ezpeldoi detektibearen urratsak jarraitzen ditugu Amikuzen barna, desagertua den Maiena AMEZTOLen misterioa argitzeko asmoz. Bederatzigarren kapituluaren hastapena duzu hau, nun Amaia jarraitzen dugun Donapaleuko Kennedy ostatu-tik, auzitegi karrikan Oihenart poetaren etxea izana deneraino. )

(...)

Kennedy ostatuaren aintzineko mahain erronda batetan jarririk zen Gaxuri buruz joan nintzaion, autotik jautsirik, ahal bezain laster. Bospasei segundaren beranta nuela nabari zen, eta Indurainek Romingerri ebatsi zizkion 42ren kasuan nola, harro sentitzen nintzen orde. Barkamena eskatzeko kinkan nindago-larik, Gaxu aulkitik zutitu zen.

— Tenorian hiz no !

— Baia ? Uste ninan...

— Ta ba ! Baduia zeiten hartzeko aizinaik ?

— Araiz ba.

Seiak pasatuxeak ziren eta De Saint Martintarren jauregian zazpietako beharrak ginen. Garagardo baten edo biren hurrupatzeko astia bagenuen, eta atertu ere ez zen euriaren laguntzarekin gero abiatuko ginen Auzitegiko karrikan zeuden handiki haien ikuskatzera. Gaxu parean nuen, eta erraiak berriz desiraz koropilatzen zitzaizkidan. Hasperen etsitua eskaini zien Gaxuk uhar temazuer :

— Guazen barneat !

Bata besteari so ginauden ixilik. Zer erran ? Nondik hasi? Gaxu tabernako leihotik kanpora beha zegoen. Gaxuren begien urdin eztian bermatzen nituen nereak, eta saiatzen nintzen inguruko elementu natural barekilako parekotasuna bilatzen. Urdin arraroa zen. Urdin arina. Kasik uhargia. Azkenean, erabaki nuen, urdin hura hain laketa zitzaizkidan apirilako zeruen kolore berdinezkoa zela. Oroitzen nintzen, Massena etorbideko bide kurtutzean, Ivrytik heltzean, noizean behin hiriko ortzaiz mugatua gisa horretako urdinezkoa zela. Martxo hastapena izan arren, apirilako ortzeen lehiaz, mututasun koropilatsua hautsi nuen :

— Urddinaren edertasuna...

- Zer derasan hik ?
- Hie begien miresle nun...
- Kotxinos ! Ta lana ?
- Ba, preseki, zeit ikasiuna ?
- Ta hik ?
- Erran hik lehenik !
- Ale...

Irriño bat marraztu zuten Gaxuren ezpaineak. Hitz xerkatzen ari zen, gure mintzairak gogo onez oparitzen zizkigun hainbeste "aukeraren" artean. Egoeraren aipatzeko ehun mila ahalmen bagenituen, eta bilatzearen bortxaz, "lur jota buletatzen ginen" eleustasunera. Bapatean "Bueltatu" pentsatu nuelarik, gogora jin zitzaizkidan behin Egunkaria-n irakurri euskaltzain baten so-las zuhurak : "Hizkuntza nazionala egin behar badugu, ez nago prest Iparraldera hizkuntza espainiarraren eramaiteko...". Amiñi bat errudun nintzen, dudarik gabe, "bueltatu" burutu zitzaidan-nean, baina zerbitzariaren hurbiltzeak nere pentsaketa linguis-tikoak ebaki zituen :

- Bi garagardo.

Ddestuka manatu nuen, bi behatz erakutsiz, badaezpada. Neskatoxeak plantan ulertu zuen. Kontent nintzen. Ulertua izaitzearen zorianak behialako erruduntasuna ezabatu zuen nitan, eta mentalki euskaltzainaren kopeta txalotzen nuen. Gaxuk, zirudienez, hitzak hautatuak zituen :

— Izan nun Aipazarrotarren etxen, ta han erran datane etzutela Maienaren berririk aspaldi huntan, ezkundu zela ta de-sagertu. Itorrotzeko kusinaren ganat bildu umen zunan...

- Bo, hori bera salatuatan Ameztoi jaunak.
- ... Ta izan nun Itorrotzen. Aipazarro zaharrak señalatu lekian huntzostoek ietsi harri metaat bezik eztnat hatzeman!
- Ordian ?
- Ago, ikusi inat aizoko etxekanderia, ta zeiten jakinian zunan...

Gaxuk, Colombok bezala, jean-eko gibe-leko sakelatik karnet ttipi bat ilki zuen, eta orrialdeak itxulikatuz, hasi zen kondatzen :

- Emazte hua, ohit dun, haurra zukenan, bena ohit dun...
- Zertaz ?
- Ba, labarneat, goiz batez...
- Harri meta haen izenaun duaikae ?
- Bai... labarneat jin zela neska gazte larden bat, mihisiak

bezein xuri, trenpu txarrian, hantik fite usu ikusi zela Itorrotzeko Jauna labarnian, ta gio fama kurritu zela Donapaleuko maasin batian sehi hartu zutela...

- Baha... i. Hiru hilaatez eon zunan beaz labarnian ?
- Itorrotzeko Jaunak, Oiergin dien etxalde batetan ezarri zinan, ta hantik Donapaleurat...
- Seur hiza ?
- Bixtan dena ! Oiergin geindi iili nun atsalde ootan !
- Alabade ! Ta ?
- Han e etxian orde z harri meta bat. Ta hik ?
- Pundu berian gitun, ingurukan ; Donapaleu artio baakine, ddio fritsik ez, etzauna drole hiri ?
- Hatzik eztiun no !

Gaxu zinez kezkatua zen. Karneta plegatu zuen, eta zegoen tokian kokatu. De Saint Martin anderearekilako solasak agian zerbait ekarriko zigun. Esperantzaz beterik, bi garagardoak or-daindu gemituen.

Errepublikan Plazan ginen berriro, eta Auzitegi Karrikara makurtzeko orduan gelditu nintzen. Maite nuen Gaxu. Amodioaren zurkaizteko agian ez zen arrazoin baten premiarik. Arriskuaren hegian konturatzen nintzen, Su ta Garren emanal-ditik landako dantzen berotasunaren ondorioz, Gaxutik demen-drena urrun, bakartzen eta haren sahetsean segurtasun pilixkaz jabetzen nintzela.

— Datz lov'... murmuzikatu nuen, eta Gaxuk ahurra sorbal-dan pausatzen zidalarik, urratsa arinagotzen zitzaidan.

De Saint Martintarren jauregian ginen. Allande Oihenarten omenezko oroitarria irakurri genuen, eta harriturik ikusi gure jendeen gazteluak Xiberotar ospetsuaren hegazpe berdina zuela.

- Alo...
- Haundikietan gitun ddio !

Txilintxa jo genuen. Sehi arropetan beztu zen neska batek ideki zigun atea. Lorez galanki apaindu lobi-ro batetan sartu gi-nen. Sehia mintzatu zen :

- Iuka ! Nor zitzela erran behar dakotet ?
- Amaia Ezpeldo eta Gaxu Pekotx -ihardetsi zion Gaxuk.
- (...)

# BIDUZA BIDUZA

ez zira ibai, ez zira erreka  
ur handia deitua zinen  
duela hamar urte, independance day-en zinen agortzen  
berantago katorz juilleterako egina zinen  
biduza biduza  
datatik datara ez duzu berantzen  
gaur udaberria plantatua denerako baitzira idortzen

ekaineko gau ortzanzkot batek  
tupustez zaitu ernaltzen  
baina goiz argirako  
gizenak ez zaitu gehiago trabatzen  
independance day, katorz juillet  
izen batzu direnak dantzatzen  
eta urruntzen joan zaizkizun mugak dituzte erakusten  
gaur udaberria plantatua denerako baitzira idortzen

biduza biduza  
goregitik ikusten zaitut gain huntako zubitik  
zipa mantarrek estokaturik  
heriotzaren hainbat zain eta erhi luze bailitzan  
hiriko ur zikinen ixuriak zaitu gaur hats berritzen

barradera hauts kolore  
margo txapelketan dizute edertuko  
ur jauzi firfirez beztituko  
baina zirkulazio frenetikoaren gas karbonikoaren hotsak  
ez du zure ixiltasuna tapatzen luzatuz doan mortu huntan  
arto elgetako nitrateg,  
arto bihi baino mantar gehiago dute hazten

belar pozoinak errekako eulixkak hezur larrutzen  
eta putzutik libratu hari meharrek ez dizu gozamen intziririk  
eskapa arazten


biduza biduza  
aspaldi du amuarrairak hiriko basuretan uzkerka zebiltzela  
hormonek ere ez dituzte salbatu,  
joan ziren  
zimentatu eta gudroinatu eremuek gidatu erauntsi  
basuretan barna

biduza biduza  
ekaineko gau ortzanzkot batek  
tupustez zaitu ernaltzen  
baina goiz argirako  
gizenak ez zaitu gehiago trabatzen  
maitale abandonatuak nola, berdin gaituzu abandonatzen  
noizaz geroztik hasirik genuen elgar utzi ?  
noizaz geroztik...

*(Poema hau « Loreak mendian, ondarkinak lurpean eta  
bideak gainean » obratik jalia da)*

## MATTIN IRIGOIEN

*1964an, Ainiza Monjolosen sortua, Amikuztartua da gaztedanik. 1991ko  
toberan parte hartu zuen Donapaleun, eta geroztik antzerki mota  
desberdin frango moldatu izan ditu. Azken urte hauetan, Kitzikazank  
taldean dabila, gela-antzerki nahiz libertimenduak plazaratuz.*




# ARRAKATAK●AZKEN HARTZA

Beroegi zen egongelan. Arkaitzek tximiniako sua itzaltzeko altxatu behar zuela pentsatu zuen, baina begiak ezin zituen ireki, akituegia sentitzen zen. Hala ere, azken indarrak bilduz zutitu zen, zurezko erloju zaharrak gaueko hamaikak jo zituenean. Harritu zen sua itzalia zegoela konturatzean. Hainbeste bero ukaiteko, sukarra izango zuen. Izerdi uretan, garbigelara joan zen, medikamentuen bila. Baina, armairuko tirantea miatzen hasi zenean, soinu arraro bat hauteman zuen. Gaineretik zetorrela iruditu zitzaion; marraka bat ematen zuen... Zer ote zen? Eskailerak igotzen ari zelarik, Arkaitz dardarka hasi zen. Marraka hori seinale txarra baizik ez zela sumatzen zuen. Gainerreko atea irekitzean, ez zuen deus entzun; orduan, sukarrarengatik dena asmatu zuela pentsatu zuenean; bazirudien Katixak margotu koadroaren gibelean zerbait mugitzen zela. Urduri, Arkaitz emeki hurbildu zen. Koadroa kendu zuenean, garrasi bat atera zuen. Zazpi katakume baziren, denak zuriak, elkarren ondoan hotzak ikaran. Katama ez zen nehon ageri. Zer arraio egiten zuen hor, nondik sartuak ziren, ez al zen bada udaberria katakumeak sortzeko garaia? Arkaitz erotzeko puntuak zegoen, galdua sentitzen zen, ez zekien zer egin. Defentsarik gabeko katutxoak kanpora bota behar al zituen, bakea ukaiteko? Ez, ez. Ongi pentsaturik, bi aterabide ikusten zituen bakarrik. Edo katutxoak salbatu eta udaberrian oihanean askatu, edo katuen espezialista zen Katixa deitu. Hark bazekien zer egin holako kasuetan, eta denbora hartuko zuen katakumeak biberoiez hazteko. Ez zen hautu erraza Arkaintzentzat. Bi aterabideek bazituzten alde onak eta txarrak. Bistan dena, Katixari katuak ematea zen errazena, hola hainbeste maite zuen neguko bakardadea lasaitasun osoan gozatuko zuen. Baina Katixa deitzen bazuen, segur aski emaztearen negarrak eta oihuak berriz hasiko ziren, eta Arkaitz hobendun sentituko zen. Zer egin behar zuen? Zein ote zen aterabide onena?

\*\*\*\*\*

Katixak margotu berria zuen hartzari so egin zion. Beste hartzak bezala, begirada hutsa zuen, ematen zuen ez zuela ezer sentitzen, arimarik gabeko hartza zela. Arkaitzek utziz geroztik, Katixak hartzak margotzen zituen, eta gauero ber ametsa egiten zuen: ikaratua, oihanean bakarrik ibiltzen zen, pausatzeko babesleku baten xerka, baina ez zuen atzematen. Oihaneko zuhaitz goregiek ez zioten zeruaren urdin bizia ikusten uzten. Unatua, arnasa hartzeko gelditzen zen. Orduan, hartz zuri bat agertzen zen, eta leize batera eramatea proposatzen zion. Katixa haren bizkar zabalaren gainera igotzen zen, hartzak oihana poliki zeharkatzen zuen, burua noizbehinka atzera itzuliz, emaztea beti hor zela segurtatzeko. Leizera heltzean, elkarren ondoan lokartzen ziren. Biharamunean, Katixa hartz goxoarekin hitz egiteko gogoarekin iratzartzen zen, baina hartzak aspalditik alde egina zuen.

Amets horrek zuen emaztearen margotzeko grina goizero pizten. Gosaldu



## BEATRICE URRUSPIL

(1975 – Donapaleu)

2010ean, Gazteluma lehiaketa irabazi duen Gizaki bakartiak ipuin bilduma argitaratu du Elkar-en.

Geroztik, zain gaude pultsu gozo eta erdi-fantastikoan harilkatzen diren istorio gehiago irakurtzeko.

gabe hasten zen; beti, hartz zuri horren begirada ezia adierazten saiatzen zen. Egun osoa horretan pasatzen zuen, baita gaueko parterik handiena ere. Amets egin eta margotu, hori zen Katixaren bizitza, Arkaitzek utziz geroztik.

Kezkatua, medikua etorri zitzaion lasaigarriak ematera, hartzaren obsesio hori desager zedin. Katixaren bizi berezia herriko biztanleen solasaldien gai nagusi bilakatu zen; zenbat mehetu zen, hezurak baizik ez zitzaizkiola ageri, margoak erosteko baizik ez zela etxetik ateratzen, gau osoan tailerreko argia pizturik egoten zela komentatzen zuten...

Katixa ez zen deusez ohartzen, beste mundu batean bizi zen, hartz zurien munduan.

Elizako ezkilak gaueko hamaikak jo zituenean, indarrrik gabe, tailerreko sofaren gainean etzan zen, pintatu zituen hartz guziak begiratzeko. Aspaldiko partez, bere gorputza akidura sentitzen hasi zen; buruan, orde, ez zuen lekurik lasaitasunarentzat. Bere aitzinean, milaka hartzek begirada zorrotzez epaitzen zuten. Amestutako hartz zurien mundu hurbil ezina... Medikuek emandako lasaigarriak hartzeko mementoa heldu zela pentsatu zuen. Lokartzen ari zen telefonoa jotzen entzun zuenean. Etengabe jotzen zuen. Urrun, urrun entzuten zuen, gero eta urrunago. Beharbada, hobe zuen erantzutea; bai, erantzungo zuen, altxatuko zen erantzuteko, bai, gelditzen zitzaizkion indarrekin altxatuko... Altxatu! Ez. Bere gorputzak ez zuen altxatu nahi, berantegi zen, hartz zurien mundura joan nahi zuen. Betirako, hartzaren begirada ezia. Betirako.

(...)

« Gizaki bakartiak » liburutik hartua - Elkar argitaletxea





## ESKERRAK :

- ♥ Céline Arrossagaray-Mirailh-i « Amiñi bat, amiñi bi, euskaraz giten bizi » kanpainarako eskaini margoarendako ; Mattin Irigoien eta Jojo Bordagarai -i kantuaren hitz eta aireendako,
- ♥ Laure Gomez-i, liburu huntan agertzen diren ilustrazioendako ; Nahia Garat eta Robert Garat-i, argazkiendako,
- ♥ Antton Kurutxarri eta Peio Etxeberri-ri, Amikuzeko eta Euskal Herriko historiaz egin sintesiarendako ; Claude Lapenu-ri, bere ekarpenarendako,
- ♥ Liburu honen ontzen orenak pasatu dituzten gure elkartekideeri,
- ♥ ... eta hala edo hola hizkuntzaren abentura huntan eskukaldi bat eman, emaiten eta emanen duten guzieri.

## DIRULAGUNTZA EMAILEAK :


- MFA, Petxoineko Lanzelaia 64120 ARBERATZE
- Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque

## EGILEAK :

Amikuzeko Ikastola, Gau eskola, Zabalik elkarte, Aldaka Gaztetxea, Amikuzeko musikariak elkarte, Kitzikazank antzerki taldea, Kilimon joaldunen elkarte.

Amikuzeko 7 elkarte hauek dute bultzatu, 2011n, « amiñi bat, amiñi bi, euskaraz giten bizi » kanpaina. Kanpaina horren baitan da liburutto hau argitaratua izan. Lehen kapitulua, Amikuzeko etxe guzietara urrik banatua izan da.





2011ko ekainean inprimatua

Espace Copie Inprimerian  IMPRIM'VERT\*  
64120 Donapaleu - tel 05.59.65.93.20

Amikuzeko euskaigintzako zazpi elkarten izenean  
Zabalik elkartea  
Mediatekako Manex liburutegia  
64120 Donapaleu

Komertzial helburuzko erreproduzioak debekatuak.  
Hortik kanpo erreproduzio eskubide guziak libro,  
iturria aipatzekotan.





*Amiñi bat, amiñi bi,  
euskaraz giten bizi*

Amiñi bat  
amiñi bi  
euskaraz gira bizi !

Bizi gira Amikuzen  
egoki da eta zuzen  
gure gogoko ele zonbaitzu,  
denetan kanta ditezen

Burgaintzitik Soihartzera  
Tüketetik Beguera  
Kürkü gainetik bixta hedatuz  
gure Peko oihera

Parte xiberutar lurren  
parte nafar erreginen  
bizitza frango bizi ditugu,  
bizi 'tugunek bederen

Gitzan Biduzaren ume  
gitzak arto ar ta eme  
elge ederrak, bazter naharrak,  
beti ta aitzina berde

Erreka tripa zabala  
uda agorren alaba  
ortzantz nigarrek loditzen dute  
matelek eman ahala

Oihenarten poemetan  
Manexen zigarret' ketan  
Gure mihien klaska ozenak  
putarka odol zainetan

Gure oraina troxatu  
plegu zaharrak goxatu  
hitzen pareta, euskal zimentez,  
nahi dugu taloxatu

Izan ttipi ala haundi  
ikas, goza, erabili  
hizkuntza hunen etxetiarrak,  
aberatsak gira naski

Amiñi bat  
amiñi bi  
euskaraz giten bizi !